

ttipi-ttapa

Autoestimua garrantzia haurtzaroan

Autoestimua ttitatik lantzearen garrantziaz aritu zaizkigu Rosa Belzunegi, Ramoni Ordoki eta Garbiñe Goia psikologoak / 10



**Oraindik pedia
zerbitzurik gabe
segitzen dute
Goizuetan** / 28

**Almandozko
harrobiko bideak
eztabaida sortu du
Baztanen** / 31

**Altsasuko gazteen
gurasoak otsailaren
2an Zugarramurdin
izanen dira** / 35

**Baztan-Errekako
Paxaka
Txapelketaren XIX.
edizioa abian** / 38



ZOKKETA / 27

SINADURAK



Maika ARIZTEGI MARIEZKURRENA, Iturengo kirolaria

**«ADINA BADUT BAINA GERRA
EMATEN SEGITU NAHI DUT»**

Gutti izanen dira Maika Ariztegi adina kirol klase probatu eta halako emaitzak lortu dituztenak. Aunitz dira lasterka, ingude altxatzen, txokor biltzen eta aizkoran jantzi dituen txapelak. / 8

ALMACO BAZTAN

GRUP **GAMMA**

www.almacobaztan.com

Berritu zure etxea!



Ekarri neurriak eta guk aurrekontuak eta proiektuak konpromisorik gabe eginen dizkizuegu! ...denetarik daukagu eta eskaintza arras interesgarriak!

Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857



27.000
irakurle



Liderrak
gure eskualdean
eta baita azterketa egiterakoan
CIEsek **Nafarroa Garaiko**
mendialdean
hartu duen 111 udalerrien
eremuan ere

DIARIO DE
NAVARRA
11.000
irakurle

DIARIO DE
NOTICIAS
10.000
irakurle

GARA
5.000
irakurle


BERRIA
4.000
irakurle

BESTE
BATZUK
5.000
irakurle


♀ **%44**
EMAKUMEAK

♂ **%56**
GIZONAK

ADINAREN
ARABERA



IKASKETA MAILAREN ARABERA



Datu iturria: CIES, 2018ko metatuak



NIRE TXANDA

KORO IRATZOKI ARBURUA

Naturarekin bat

Urtarrila xukia, urte gosetia. Hala zioten gure aitzinekoek. Lurra eta zeruari begira bizi ziren gure aitatxi-amatxiek.

Beraiek ederki sofritzen zituzten neguko hotza, euria eta elurra, ez baitzuten guk ditugun kalefakzio, arropa goxo, *goretex* oinetako edo euritako zamarrak. Baina hala ere, ongi bazekiten hotza, euria eta elurra behar-beharrezkoak zirela naturak bere bizitza 'naturala' behar den bezala egiteko.

Euria beharrezkoa da erreka betetzeko. Hotzak (eta hormak) mamuru, euli beltzak, harrak eta halakoak kasatzen ditu. Eta elurak lur-azpiko iturriak hornitzen ditu.

Gaur egun ez gara naturarekin bat bizi. Gure ingurua asfalto, zementu eta breazkoa da batez ere, eta mendirat hurbiltzen garenean, uste dugu *Disneyland* batean gaudela, bazter eder horiek bakarrik gure disfruterakoz direla. Ez gara konturatzen natura bizirik dagoen zerbait dela, eta ondorioz, bere beharrak ere badituela, horien artean, euria, hotza eta elurra. Beraz, ongi etorriak neguko euri, hotza eta elurra!

«NATURA BIZIRIK
DAGOEN ZERBAIT
DA ETA BERE
BEHARRAK DITU»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Denak berdintzen gaituena

Heriotza omen da mundu guztia berdintzen duena, baina hori baino lehen (eta gozoago), sagardotegiek ere lan hori betetzen dute. Non bertzela ikus ditzakegu elkarrekin eta orpoz-orpo Inaxio Perurena harri-jasotzailea eta Koma taldeko abeslari den Brigi Duke? Julian Iantzik ireki du aurten kupelak konkistatzeko bidea, beraz, *Txotx!* berdintasunean.

NABARMENTZEKOAK



JULIAN
IANTZI
AURKEZLEA



GORKA
URTASUN
ERREMONTELARIA

Julian Iantzi telebistako aurkezle lesakarrak urtarrilaren 11n ireki zuen Nafarroako txox denboraldia Lesakako Lindurren bordan sagardotegian. Bera izan zen sagardo berria dastatzen lehenbizikoa.

Eguberrietako erremonteko buruz buruko txapelketako final ikusgarria jokatu zuten Gorka Urtasun iruritarrak eta Urriazak ilbeltzaren 12an Bartzelonan. Edozeinek irabaz zezakeen, baina Urriza nagusitu zen.

ATZERA BEGIRA



2009-01-22 · TTIPI-TTAPA · 486 zk.

Ttipi-Ttapa Telebistaren agurra

Duela hamar urte, 2009ko ilbeltzaren 31n gelditu zen TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN jarduna. Ez zen erraza izan, baina orduko egoera eta etorkizunera begira zeuden aurreikuspen ekonomiko eta legal kezkarrien ondorioz, saminez eta nekez erabaki hori hartu behar izan zuen TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK. Izan ere, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarik gabe, krisi orokorraren eraginez publizitatean diru-sarrera guttiagorekin eta, LTDaren atarian (Lurreko Telebista Digitala) Foru Administrazioak eta Espainiako Gobernuak telebistaren egoera legeztatu eta emisiorako lizentzia eskuratzeko aukerarik gabe utzia zuten. Huraxe izan zen 1998ko ekainean abiatu zen ibilbidearen azkena.

 ttipi-ttapa

erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Fernando Etxeberria, Mattin
Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo
Imaz, Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Aranxa Iturralde,
Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi,
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarte

2019ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	38€
Leitza	26€
Hego Euskal Herria	44€
Ipar Euskal Herria, Europa	83€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra

 mecna

 BAZTANGO
EUSKARA
SEKTOREA

 BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA

 Malerrekako
Mankomunitatea

 CC BY SA



KOLABORAZIOAK

EILA SAGASTIBELTZA PIKABEA BIDAIZI ELKARTEA

Ongi ibili!

Azken hamarkadetan izugarri aldatu da gizakia. Eta horietako aldaketa bat bidaiatzearena da. Orain berrogei urte nork pentsatuko luke ia familia guztiak oporretan joanen zirenik edo bidaiatuko zutenik? Egun, bidaiatzea ohikoa den zerbait bihurtu da. Baina gauzak aldatzen diren moduan, bidaiatzeko manera berriak ere sortzen dira. Alternatiba hauek bertzelakoa dute helburua: bertakoarekin erlazionatzea, lan jarduera berriak ezagutzea, esperientzia berriak bizitzea edo merkeago bidaiatzea erraterako.

Alternatiba franko badira, baina gaurkoan WWOOFing, Helpx edo Workaway bezalako alternatiben berri emanen dizuegu. Hiru horiek funtzionamendu berdina dute: bertakoaren etxean lan pixka bat egitearen ordainean ohatzea eta eguneko otorduak eskaintzen dituzte. Normalean eguneko lau bat ordu lan egin behar dira, baina hori ere etxeko nagusiarekin adosten ahal da. Lan mota, berriz, anitza da. Helpx eta Workaway-en kasuan ohikoena

**«BIDAIAZTEKO
MANERA BERRIAK
SORTZEN ARI
DIRA»**

da etxeko zerbaitetan laguntzea: haurrak, baratzea, animaliak edo etxearen mantentze-lana adibidez. Woof sistema, berriz, zehatzagoa da. Ingelerako *World-Wide Opportunities on Organic Farms* hitzetatik heldu da,

eta izenak berak dioen bezala, baserri ekologiko edo organikoetan lan egiteko aukera da. Beraz, bertan eginen diren lanak abeltzaintza edo nekazaritza ekologikoari lotuak izanen dira.

Alternatiba horietan parte hartzeko, lehen pausoa web orrialdean izen-ematea da, modu honetan etxe eta baserriekin kontaktatzeko aukera izanen baitugu. Bigarren pausoa gure burua aurkeztu eta definitzen duen profila sortzea izanen da. Azkenik, orrialdeko eskaintzetan kuxkuxean ari eta gustuko tokia ikusten dugunean, mezu bat bidaliz berekin kontaktuan jarri beharko gara. Eta horra hor alternatiba berri hau probatzeko aukera! Probatzera animatzen zarete? Ongi ibili!



IZASKUN IGOA JAIMERENA

Lainoa goititzen hasi da

Lainoa zokoen zokoraino sartu da eta harri bide honetan ez ditut metro bat haratago dauden arbolak ikusten. Herrian ere ez da etxerik ageri, dena laino kapak estali du. Belai berde, zeru, hosto, erreka, animalia eta gainerako izakiak ez dira ikusten. Badirudi, egunero ikusten dudana orotik ikusiko ez banu zer sentituko nukeen demostratu nahi didala lainoak.

Zerbait oroitarazi nahi izanen balit bezala.

Eta gu ere ez gara naturatik hain diferente, harenak izanik. Guk ere bazuetan lainoak egiten duen gisan estaltzen dugu geure burua, bertzeen begiek ikustea nahi ez duguna gordez. Bertzeek ez badute ikusten guretzat ikusgaitz bihurtuko delakoan. Baina lainoak besoen artean hartzen duen dena bihurtzen du ikusgaitz, ikustea nahi ez duguna bai eta ikustea nahi duguna ere. Norberaren ezaugarri bakar, bereizgarri, sormenaren sortzaile izan litezkeen altxor tiki horiek denak altxatuz.

Abiadura mantsotu dut etxera beranduago iristeko,

**«GUK ERE LAINOAK
EGITEN DUEN GISAN
ESTALTZEN DUGU
GEURE BURUA»**

bitartean zuek denon bitxikeria horiek zein diren pentsatuz, zuen lainoak zer gorde lezakeen konturatuz; etxean sartu ahala etxeko paretak irriz paratzen dituenaren alaitasuna, hanka-puntetan ibiltzen den

haren arintasuna, begietara begiratu ezin duenaren lotsa, hitzak galdu zituenaren begirada, tristura azaleratzen duenaren gardentasuna, gitarraren sokak indarrez hartu dituenaren instintua, etxeko eskailerak lau saltotan igotzen dituenaren bizi-gogoia, mahai-ingurua begirada gordez grabatu duenaren isiltasuna, hainbertze ematen dakienaren maitasuna, zerbait kontatzean detaile ttikienak alde batera uzten ez dituenaren artea, zakurrekin solasean orduak pasatzen dituenaren jakintza, koloreak berriz ikustea lortu dituenaren indarra, urtean behin edo bitan elkarrizketa amaigabea sortzen laguntzen gaituenaren ilusioa, bertzeen onena ikusi dezakeenaren desioa, beldurrak onartzeko beldurra galdu zuenaren kemena. Eta abar luze bat, egunero bista propioa sendatzeko laguntzen duten parajeak eskainiz.

Lainoa goititzen hasi da, honek ere, guk bezala, egunero modu propioa du goititzeko. Berak utzitako hutsuneen arabera sartu dira eguzki izpiak, inguruan sortu duen argia errepikaezin bihurtuz.

Geure distira pasatzeko tokirik uzten dugun begiratzea oroitarazi nahi zidan gaur lainoak.

11 GALDERA LABUR

MARIA LARRETXEA ITURENEN BIZI DEN LEGASARRA

«Atautxi-amatxiei esker inauteriez gozaten dugu»

Aurkeztu zure burua.

Iturenen bizi den ama gazte bat naiz, sortzez legasarra.

Zenbatero joaten zara Legasara?

Ahal dudan guztietan ama eta aita bisitatzeko aprobetxatzen dut, batez ere asteburuetan. Igande gehienetan gurasoen etxera joaten gara eta haiekin bazkaltzen dugu.

Zer zaletasun dituzu?

Dantza aunitz gustatzen zait. Astean bitan zunba egiten dut eta aurren, sei urteren ondok, euskal dantzak ikasten hasi naiz. Astean behin zortzi laguneko taldetoxoa biltzen gara. Eskubaloia ere gustuko dut, baina duela hemezortzi urte, lesio bat tarteko, belauna operatu zidaten eta orduz geroztik ezin dut jokatu...

Laster bai Iturenen baita Legasan ere inauteriak dituzu...

Legasako inauterietara ez naiz aspaldian joan; Iturenen, berriz, hor bizi aitzinetik ere barru-barrutik bizitzen nituen.

Seme-alabak izan dituzunetik zertan aldatu zaizkizu inauteriak?

Orain ahal dudan otordueta-ara bakarrik joaten naiz. Baina egia erran, haurrak Iturengo eta Legasako amatxi eta atautxiekin uzten ditugu eta haiei esker gehienetan ahal izaten dugu. Lauei eskaintzen ditugun laguntza eskertu nahi nieke.

Egunez edo gauez bizi dituzu gehiago?

Egunez gozaten dut gehiago. Azken batean egun aunitz dira eta...



Mozorrotzen al zara?

Bai. Igandean alaba eta lagunekin mozorrotzen naiz; semea, berriz, aitarekin ateratzen da joaldun. Astelehenean, berriz, kuadrillakoekin gosalduta eta mozorrotzen naiz. Egundia haundia astelehena bada ere urtez urte igandeko giroa hobetuz doala erranen nuke...

Eta joareak, jantzi izan dituzu?

Joan den urtean asteazkenean jantzi nituen. Ordura arte inauterietan gauez baino ez

nituen jantziak; eta errege bezperan, behin baino gehiago jantzi izan ditut.

Asteburuko plan ederrena?

Familiarekin egun-pasa eder bat egitea plan polita da niretako.

Legasako txokorik ederrena?

Bat aipatzekotan Santa Lokari ermita erranen nuke.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Ingurukoak eta bereziki nire seme-alabak kontent eta ongi ikustearekin nahikoa dut.

1951tik
Casa Cambra
 lentzeria-etxea

Merkealdia

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634



GOITI ETA BEHEITI



UTZITAKO ARGAZKIAK

Zakur kakekin ezinean



Grazia ederra egiten du karrikan lasai zoazela halako pastela hankapean zanpatzeak... Akaso pastela egin duenaren jabeak probatu ez duelako ez du jakinen? Kontua da kexak nonahi sumatzen direla. Azkenak Leitzatik datoz. Leitzako Udalak zakur kakak biltzeko kanpaina abiatu du.

GOITI ETA BEHEITI



Nikbotaez berrerabilpen-webgunea berritu dute



2011n sortu zuten yonolotiro.es eta berriki hainbat hobekuntza egin dituzte. Gizarteak bizitza baliagarria duten objektu aunitz baztertzen dituela eta, denetariko objektuak trukatu, oparitu edo saldu daitezke webgunearen bitartez, bertzela hondakin bihurtuko lirartekeen objektuen bizitza luzatuz.



BOTA BERTSOA
MAIALEN BELARRA
 DONEZTEBEKO BERTSOLARIA

Gazteok pentsiodunekin bat



Doinua: Irun badaukazu zer bait (Aitor Sarriegi)

DBH, Batxilerra eta ondotik karrera, masterra eta inglesa inoiz ez daude sobera. Prekarioki lan munduan sartzearekin batera, oposaketak gaindituz poliki goaz aurrera... Eguneroko borrokan garatuz doa norbera; beste mila gazte ere dabilta nire antzera. Halere barruan dugu hain lausoa den galdera: guretzat erretiroa ailegatuko ote da?

Ta jubilatzerakoan zer da espero duguna? 1.000 eurora iristen ez den pentsio zurruna. Non daude eskubideak? Eta non duintasuna? Haiek defendatzea da gure erantzukizuna. Nahiz ta sistema bera den egoeraren erruduna, gure miseria denez, beste askoren fortuna, babestu eta bultzatu dezagun pentsioduna; haren oraina delako gazteon etorkizuna.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

 Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
 info@ttipi.eus
 948 63 54 58

V. ARGAZKI LEHIAKETA

erran.eus atarian

erran.eus
Mendialdeko Albisteak

Gaia: **ESKUALDEKO INAUTERIAK**



Argazkia: "Ikusiz ikasi" - Juan Carlos Olaetxea

Informazio +
erran.eus



OINARRIAK

1. **TTIPI-TTAPA** eta **XORROXIN** zabaltzen diren eremuetan sortu edo bizi eta 16 urtetik goiti duen orok parte har dezake.
2. Argazkiak 2019ko inauterietan ateratakoak izanen dira (argazkia non atera den zehaztu beharko da).
3. Argazkiak mugikor, tablet edo argazki kamerarekin ateratakoak izan daitezke, originalak eta bertze inon argitaratu gabeak. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez litezke eta 300 px-ko bereizmena eta 28x16 zentimetroko gutxieneko tamaina izan beharko dute (baldintza hauek betetzen ez dituztenak baztertuko ditugu).
4. Argazkiak **ERRAN.EUS** artxiboan altxatuko ditugu eta guretzat gordeko dugu jasotako lanak publikatzeko eskubidea.

Argazkiak **ERRAN.EUS** atarian lehiaketarako prestatutako formularioaren bidez bidali beharko du parte-hartzaileak.

EPEAK:

- Argazkiak bidaltzeko epea: urtarrilaren 20tik martxoaren 22ra.
- **ERRAN.EUS**eko erabiltzaileen saria emateko **bozketa fasea**: martxoaren 27tik apirilaren 12ra.
- **Irabazleak**: **ERRAN.EUS** atarian jakinaraziko ditugu apirilaren 15ean.
- **Sari-banaketa**: maiatzean.

Animatu!

SARIAK

EPAIMAHAIAREN SARIA:

NEKATUR BONO ORLEGIA
2 lagunendako 2 gau eta 2 gosari



NEKATUR NEKAZALTURISMOA
ELKARTEA
Tel: 943 327 090
www.nekatur.net



ERABILTZAILEEN SARIA:

ELGORRIAGAKO BAINUETXEAN
2 lagunendako zirkuitua + otordua



HOTEL BALNEARIO ELGORRIAGA
Errotaldea, Elgorriaga
Tel: 948 45 60 45
www.sanvirilahoteles.com/
hotel-balneario-elgorriaga/



PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN:

ELBETEKO POSADAN
2 lagunendako otordua



ELBETEKO POSADA
Nagusia, 1 ELBETE
Tel: 948 581 519
www.posadaelbete.com/eu



«Oraingo umeek mugikorra duten bezala guk aizkora eta sardea»

MAIKA ARIZTEGI MARIEZKURRENA ITURENGO KIROLARIA

Neska gaztea zela hasi zen lasterketetan parte hartzen eta txapelak janzen. Geroztik aunitz dira lasterka ez ezik, ingude altxatzen, txokor biltzen eta aizkora irabazi dituen txapelketak

G. PIKABEA ITUREN

Erronkak maite ditu, zailtasunei aitzin egitea eta onenen kontra aritzea. Ez da erraz kiltzen den horietakoa. Ez zituen sobera atsegin ikasketak; bai, ordea, kirola. Gutti izanen dira Maika Ariztegi (Ituren, 1972) adina kirol klase probatu dituztenak. Ez hori bakarrik, segur aski halako emaitzak lortutakorik ere ez da izanen. Txokor biltzen, lasterka, aizkora, ingudearekin... Mugitu beharrekoak eskuak edo hankak izan, denak fin aski gobernatzen ditu. Horren seinale izanzen 2018a: iaz jokatu zituen zazpi txapelketetatik bortz irabazi zituen: Urrezko Aizkora eta Nafarroako eta Euskal Herriko ingude altxatze eta txokor biltze txapelketak. Euskal Herriko Aizkora Txapelketa eta Urrezko Kopa gelditu zitzaizkion zintzilik.

Nondik datorkizu afizioa?

Betitik gustatu izan zait kirola. Eskola ez zitzaidan hainbertze gustatzen, baina mugitzea aunitz. Bizikletan, mendian, lasterka... Kirola edozein zela ere, nahiko ongi moldatzen nintzen eta gustura ibiltzen nintzen.

Noiz eman zenuen plazarako pausoa?

Lehenbizian, krosak egiten hasi nintzen eta egia errateko, orduan denak irabazten nituen. 15 urterekin atletismo talde batean sartu nintzen. Lehenbizi Malerrekan aritu nintzen eta gero Berako Gure Txokoran

eta Iruñeko Beste Iruñan. Pamplona Atletico taldean urte bat edo egin nuen baina pistan ibiltzea nahiago zutenez, eta

niri mendian ibiltzea gustatzen zitzaidanez, agudo atera nintzen. Beste Iruña taldearekin Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia,



Ariztegi ingudearekin, Iruñeko sanferminetan egiten den Nafarroako txapelketan.

«ADINA BADUT BAINA GERRA EMATEN SEGITU NAHI DUT»

«HERRI-KIROLETAN EMAKUMEAK GUTTI GARA BAINA MAILA POLITA DUGU»

Araba eta Espainiako lasterketetan ibili nintzen eta lasterketa aunitz irabazi nituen. Nafarroako Kros Txapelketa 12 aldiz irabazi nuen eta Lizuniagako Igoera 16 aldiz. 40 urte arte ibili nintzen lasterketetan. **Nolako entrenamenduak egiten zenituen?**

Nire gisara ibiltzen nintzen. Mendi buelta batzuk, tarteka zelaian lasterka... Batez ere krosetan ibilia naiz, eta base-ri aldera malda goiti eta behe-iti ibiltzen nintzen, Lasaga auzotik Ameztira (Ituren). Behobia-Donostia lasterketarako entrenatzeko, berriz, Zubieta alderako errepidean ibiltzen nintzen. Baina beti inguruan entrenatu izan naiz, entrenatzaile edo prestatzailerik gabe. Kanpora joateko erraten zidaten, bakarrik izanda zaila izanen zela egunerokoa. Baina beti izaten nuen entrenatzeko gogo. Ikaragarri gustatzen zitzaidan eta emaitza onak lortzen nituenez, oraindik gogo gehiagorekin ibiltzen nintzen.

Eta orain herri-kiroletan burubelarri. Nola hasi zinen?

26 bat urte nituela hasi nintzen. Lasterka ibiltzen nintzela eta, txokorrek biltzen ongi moldatuko nintzela erran zidaten eta saiatzea erabaki nuen. Geroztik, Nafarroako Txokor Biltze Txapelketa egin den aldi guztietan parte hartu dut, baita irabazi ere. Eta Euskal Herrikoan hamabortz txapel jauntzi ditut. Aizkora ere probatu nuen eta nahiko ongi moldatzen nintzela ikusi nuen. Baina aizkora ez da txapelketa aunitzik egin. Joan den urtean egin zen lehenbiziko aldiz Euskal Herriko Txapelketa eta hiru bakarrik apuntatu ginen, nahiz eta erakustaldietan gehiago garen. Hortaz aparte, 2016az geroztik Donostian Urrezko Kopa egiten da eta lehenbiziko urte hartan irabazi nuen. Ingudearekin Euskal Herriko txapelketa bortz aldiz egin da eta nik lautan irabazi dut, eta Nafarroakoan egin dudana guztietan lortu dut txapela. Orain



Iturendarra 72 ontzako enborra ebakitzen.



Ariztegi txokor biltzen, Euskal Herriko txapelketa batean.

arpanean ere aritzen naiz, baina erakustaldietan bakarrik. **Aizkora utzi eta hartu ibilia zara...** Bai, garai batean, Kristina Saralegi eta biok herriz herri erakustaldiak eginez ibiltzen ginen. Orduko oroitzapen onak ditut. Sasoi ederra genuen eta ohituta geunden aizkora aritzera. Ni baserrian aritzen naiz lanean eta eskuetan erabili dudana tresna izan da aizkora. Oraingo umeak mugikorra eskuetan jaiotzen diren bezala, guk sardea, aizkora... izaten genituen. Urte batzuen buruan, Kristinak utzi egin zuen eta nik ere uztea erabaki nuen, adinik hoberenean banengoen ere, bertze inor ez zegoelako. Gerora, Nerea (Sorondo), Irati (Astondoa) eta Alazne (Etxaburua) hasi ziren eta berriz apuntatu nintzen. **Aizkora apustu bat jokatutakoa zara: 2016an, Irune Izkue lagun, Iñaki Aierberen kontra aritu zinen.** Bera etorri zitzaigun desafioka. Bera esku bakarrarekin eta gu txanda librean aritzeko bota zigun, eta aunitz pentsatu gabe baietz erran nuen. Diferentzia haundia eman zigun eta erraz irabazi genuen. **Gazte garaian, bestaren ordezkirola aukeratu zenuen...** Egia errateko, ez naiz sobera bestazalea izan. Herriko inau-

teriak sakratuak ziren eta ez nintzen ura edatera ateratzen, baina gainerakoan, aise egoten nintzen bestarik gabe. **Ama izanda ere kirolean segituz duzu. Amatasuna oztopo izan da?** Ez. Kristinak utzi zuen garaian ama izan nintzen. Aizkora utzi nuen baina sobera gogor ez bazen ere, lasterka ibiltzen segitu nuen. Haurrak nirekin eramaten nituen, bularra eman eta dekantsuetan ibiltzen nintzen, txirrinta kentzeko adina.

Nola ikusten dituzu emakumezkoak herri-kirol munduan?

Ez gara hainbertze, baina maila polita dugu eta lan onak egiten ditugu. Aizkoraren kasuan, konplikatua da, entrenatzeko egurra behar delako eta mozten ikasi behar delako. Lasterka, ordea, diferentea da. Maila haundia dago eta jende aunitz dago bai gizonezkoetan baita emakumezkoetan ere. Galtza motzak eta zapatila batzuk paratu eta

dulasterka ibil daiteke, herrikiroletan baino errazagoa da. **Herri-kirol mundua parekidea da?** Maila profesionalean, ez dugu behin ere emanen beraien maila. Gizonezkoek indar gehiago dute herrikiroletarako, baina guk ere lan politik egiten ditugu eta profesionalak ez diren bertze edozein gizonezko baino gehiago gara. **Zure markak hobetuko al dituz inork?**

Markak hobetzea posible da. Beharbada lagun bakar batek hainbertze kirolean markak hobetzea zaila izanen da, baina ingudearekin edo txokorrekin ni baino azkarrago egin dezaketenak izaten ahal dira. **Gaur egun, zein entrenamendu egiten dituzu?**

Txapelketei begira prestatzen naiz, hilabete pare bat lehenago hasita. Aizkora txapelketaren bat heldu baldin bada, horretarako prestatzen naiz: astean behin egurrak moztu, lasterka pixka bat ibili, mendi bueltaren bat edo bertze egin... Ingude txapelketa denean, ingudearekin entrenatzen naiz eta txokorrekin berdin.

Elikadura zaintzen duzu?

Urtean zehar ez diot kasu haundirik egiten, baina txapelketarako prestatzen hastean, grasa guttiago jaten eta pisua mantentzen saiatzen naiz.

Zure zein ezaugarri nabarmen-duko zenuke?

Bat ikasten ona izan daiteke ikastea gustatzen zaiolako eta horretan segitzen duelako. Niri herrikirolekin horixe gertatzen zait. Herrikirolak aunitz gustatzen zaizkit eta ez ditut utzi, segitzen dut. Hortaz aparte, lehiakorra naiz eta joaten naizen tokira joatean naizela, ahal dudana guztia eman eta irabazten saiatzen naiz. Lana akitu arte ez dut etsirik hartzen.

Adina ez da muga zuretzat...

Badut adina baina gerra ematen segitzen dut. Bertzeek alde haundia ateratzen didatela ikusiko banu, erretiratuko nintzateke. Baina iaz gerra emateko gai nintzela erakutsi nuen eta aurten berriz saiatuko naiz.

Motzean

Kirolari bat?

Lasterka munduan Martin Fiz eta aizkora Miguel Mindegia.

Plaza bat?

Donostiako Trinitate Plaza. Ongi moldatu izan naiz plaza horretan eta gustukoa dut.

Apustuak, txapelketak ala erakustaldiak dituzu nahiago?

Txapelketak. Aunitz motibatzen naute.

Noren aurka jokatuko zenuke apusturen bat gustura?

Beti hoberenaren kontra joatea gustatzen zait. Ez zait gustatzen txapelketetara aurkeztea hoberenak hor ez badaude. Gisa horretara irabazteak ez dit graziaz egiten.

Lehenengo edo oraingo kirolariak dira hobekak?

Lehen eta orain kirolari onak badira.

Maniarik?

Hondarreko txapelketa kamiseta eta oinetako jakin batzuekin irabazi badut, plazara ateratzen naizen hurrengoan horiek jauntzen saiatzen naiz.



Norbere buruaren irudia eraikitzen

Haurtzaroan autoestimua lantzearen garrantziaz aritu zaizkigu Rosa Belzunegi, Ramoni Ordoki eta Garbiñe Goia psikologoak eta autoestimua indartzeko euren aholkuak bildu ditu **TUPI-TAPAK**

G. PIKABEA

Solas politek eta itsusiek, laudorioek eta irainek, errietek, keinuek, begiradek, zigorrek... Denek eragina dute autoestimuan. Maiz aditzen dugun hitza da, eta adituen arabera, aunitzek uste baino lehena gotik hasten gara autoestimua eraikitzen; Garbiñe Goia (Bera), Ramoni Ordoki (Lesaka) eta Rosa Belzunegi (Elizondo) psikologoen hitzetan, ttikitatik.

Nola eraikitzen da?

Autoestimua «modu gradualean eraikitzen» dela dio Goiak: «haurrak bere historian inguruan jaso dituen ebaluazio multzoa bereganatzen du eta horrekin bere buruarekiko duen iritzia eraikitzen du». Baina haurrak «izaera propioa» dakarrela ere kontatu digu: «izae-rak eta biologiak garrantzi handia du inguruan jasotzen duen balioa neurtzerakoan».

Beratarraren arabera, «haurra amaren sabelean dagoenetik egitura psikikoa eraikitzen hasten da: «horrek eragina du autoestimua eraikuntzan». Haurra jaiotzen denean, «modu inkontzientean bada ere, ingurua nola den hautematen hagitz adi egoten da. Ingurutik jasotzen duen balorazioa, maitasuna, goxotasuna eta kon-

fiantzako mezuekin autoestimua eraikitzen hasten da». Hasierako urteetan «gurasoen mezuek berebiziko garrantzia» duten bezala, haunditu ahala, «bertzeen mezuek ere garrantzia hartzen dutela» azaldu digu. Alde horretatik, eskolaren papera azpimarratu du: «autoestimua eraikuntzan ezinbertzekoa da: hezkuntza sistemak haurren ongizatean lagun dezakeen bezala, kalte ere egin dezake».

Belzunegik «haurra inguru hurbilarengandik autonomo, bereizi eta desberdin izaten hasten denean, bizitzarako erremintak bereganatzen» dituela dio. «Hasieran berehalako plazera nahi du, dena segituan, baina errealitateak mugak jartzen dizkio. Autonomia hartzen duen prozesu horretan, haurrak bere jarre-arekin, hasieran gurasoak eta familia eta gero eskola-ingurua kontent utzi edo haserraraz ditzakeela konturatzen da. Orduan hasten da bere ekin-

«AUTOESTIMUA PERTSONA BATEN OINARRIA DA»

RAMONI ORDOKI, PSIKOLOGOA

tzekin baloratua edo ez sentitzen eta autoestimua sentimendua osatzen». Garai guztiak «garrantzitsuak» direla dioen arren, «nerabezaroa» nabarmendu du: «guraso, irakasle eta haurtzaroan berretzat garrantzitsuak izan diren pertsonengandik bereizi eta bere diskurtsoarekin munduan kokatzen hasten den unea delako». Bere hitzetan, horixe da «norbere buruarengan konfiantza, zentzu kritikoa eta gauzak bere akatsekin egiteko gaitasunak garrantzi handiago hartzen duen garaia».

Ordokik ere «autoestimua nerabezaroan finkatzen hasten» dela dio. Haurretan «autoestimua mugikorra» omen da, «egoeraren eta adinaren arabera». Oraindik ez dago egin eta zerikusi handia du gurasoekin, eskolarekin, lagunekin...». Bere ustez, bortz urtetik aitzinera hasten dira autoestimua eraikitzen: «zati bat berezkoa dute baina hori kudeatzen ikasi egiten da eta

«HAURRA GEHIEGI BALORATZEAK ERE EZ DU LAGUNTZEN»

ROSA BELZUNEGI, PSIKOLOGOA

horretarako gakoak dira bortz urtetik aitzinerako urteak».

Autoestimua garrantzia

Hiru adituak bat datoz haurtzaroan autoestimua lantzea «hagitz garrantzitsua» dela erraterakoan. Lesakarraren hitzetan, «persona baten bizitza guztirako oinarria delako». Elizondoarrak gaineratu duenez, «horren arabera, ekintza berriei ekinen die, bere iritzia emanen duen, hanka sartzen ikasiko du katastrofe bat izan dela sentitu gabe eta zuzentzen ikasiko du. Ez da bertzeek beregatik pentsa dezaketenari begira egonen». Bide beretik jo du beratarrak: «hein batean horrek baldintzatzen du helduaroan izan dezakeen arrakasta pertsonala. Bizitzan egin nahi dituen gauzak egiteko konfiantza horren beharra du».

Ondorioak

Ordokik autoestimua izateak «arazoei aitzin egiten laguntzen» duela dio. Goiak gaine-

«AUTOESTIMURIK GABE EZ DELA GAI SENTI DEZAKE»

GARBIÑE GOIA, PSIKOLOGOA

ratu duenez, «autoestimu altua duen haur batek bere buruarengan sinesten du, badu espazio bat bere familian, eta ondorioz, munduan ere tokia baduela sentitzen du. Egoerak eta erronkak gaintzeko konfiantza badu, gaizki eginez gero ere, epaitua sentitu gabe onartzen ditu bere hutsak».

Aitzitik, «bere burua ez badu aunitz baloratzen, gauza aunitzetan gaitasunik ez duela pentsatuko du» beratarren irudiko, «eta beraz, egin gabe gelditu daiteke. Gutti balio duela pentsatzen dute eta gauza positiborik ez dutela merezi». Konfiantza eskasiak bizitzan eta harremanetan ere eragiten du Goiaren ustez: «maitasunik merezi ez dutela senti dezakete eta beraz, lagunekiko elkarrekintza segurtasunik gabekoa da». «Errudun sentitzeko joera» omen dute eta «eta kulpasentimendua haur eta helduengan aunitz paralizatzen duen emozioa da».

Ordokik «muturrek» ez dutela laguntzen jakinarazi du eta «dena neurrian» egin behar dela: «kritika sobera dagoenean edo diziplina gogorregia denean, haurraren izaeraren arabera, arrot zapaldu dezakegu, edo adin batera ailegatzean, gurasoen kontrako jarrerara har dezake».

Bide beretik, Belzunegik «gaizkieginikoak aurpegiratzen dizkieten eta ongi egindakoan edo saiaturakoan onartua edo baloratua ez den haurrak dena gaizki egiten duela» sentituko duela ohartarazi du. Bere buruarengan konfiantza gutti izanen du eta berak pentsatzen edo nahi duena duenari baino garrantzi gehiago emanen dio bertzeek diotenari». Baina «autoestimu altuegia» izatearen ondorioz ere aritu da: «onena dela eta dena ongi egiten duela errateak ez du laguntzen, denok egiten ditugulako gauzak gaizki». Gisa honetara, «berregandik espero dena ez betetzeko beldurra senti dezake, eta inhibiziora jo». Lesakarrak ere «gauzak

Nola lagundu autoestimua indartzen?



GARBIÑE GOIA
PSIKOLOGOA (BERA)

«Haurra maitatua sentitzea pausu haundia da»

«Baldintzarik gabeko maitasuna eskaintzea». Horixe da Goiak gurasoei luzatu dien mezua. «Haurra maitatua sentitzen bada, egiten duena egiten duela ere, pausu haundia da autoestima ona erakitzeko».

Haurrak bere izaera «epaitua ez sentitzea» ere garrantzitsutzat jo du: «ez da gauza bera barkatu ume, egin duzun hau ez zait gustatu arrazoi horiengatik, hori egiten baduzu hori gertatzen da...» erratea edo 'zeinen tontoa zaren! Ez duzu deusetarako balio!' erratea. Lehenbizikoan, ekintza kritikatu dugu, eta bigarrenean, bere izaera». Bigarren kasuan, «haurrak 'ez naute maite', 'ez dut ezertarako balio' pentsa dezake». Jende aitzinean «kritika negatiboak saihestu» beharrekoak direla ere adierazi du: «ekintza positiboak publikoki txalotzen ahal dira, baina gaizki egindakoak zuzendu bai baina arlo pribatuan uztea garrantzitsua da». Hartara, «hanka sartzeko beldurrik ez du izanen». Anai-arreben artean konparaketarik ez egiteko ere aholkatu du: «zuzendu nahi dugun haurri begiratu behar diogu».



ROSA BELZUNEGI
PSIKOLOGOA (ELIZONDO)

«Gurasoen konfiantza emanez lagundu diezaioke haurri»

Haurrak egunerokoan nola erreakzionatzen duen ikusteko «erne» egotea «garrantzitsua» dela adierazi digu Belzunegik: «zein den haurrak bere buruarekiko duen sentimendua, hanka sartu eta zuzentzeko duen gaitasuna... Norbere burua aski baloratzen duen haurrak eta norbere burua guttietsi gabe bizitzan gauzak ongi eta gaizki ateratzen ahal direla onartzen duenak bizitzak erakusten dionarekin egingen du aitzinean». Horretarako, gurasoen «konfiantza» emanez lagundu diezaiokeela uste du: «eurengan sinetsiz, eta batez ere, eurekin solastatuz, animatuz eta ongi egiten dutena baloratuz». Halere, «dena ez dago gurasoen esku», aipatu du: «haurrek zati bat berezkoa dute, gurasoendako ezezaguna dena, eta horrek ere badu bere garrantzia bizitzan egiten dutenarekin».

Bertalde, «gauza berriekin hasteak eta arriskua ezagutzeak beldurra eragin dezakeela» jakitun den arren, Belzunegiren irudiko, «maila egokian eginez gero, autoestimuari laguntzen dio, eta aunitz gainera».



RAMONI ORDOKI
PSIKOLOGOA (LESAKA)

«Helduok emozionalki lagundu eta aditu egin behar diegu haurrei»

«Emozionalki lagundu eta haurrek erraten dutena aditu» behar dela uste du Ordokik, «ttikiak direnean, helduok dagokigu autoestimua indartzeko erremintak ematea». Baina «aditzeak ez du erran nahi dena onartzeak», gaineratu du, «zerk balio duen eta zerk ez erakutsi behar zaie».

Haurra «maitatua sentitzea» da «baliotsua» dela erakusteko gakoetako bat. «Errieta egiterakoan, egin duena kritikatu behar da, eta ez bera bere osotasunean. 'Ez zait batere gustatzen hori nola egin duzun' erranez zuzendu behar diegu, eta ez 'desastre bat zara'». Emozioek «garrantzi haundia» dutela eta, «zerbait gaizki atera zaiolako ezin duela sentitzen hasten bada, antsietate haundia senti dezake, eta gauza berrien aitzinean, hala sentituko da, edo haserre, ez ateratzeko beldurrez». Halakoetan «ttikitatik lagundu» behar zaiela dio, «gai direla erakutsiz». Haur baten «beharririk haundiena seguru sentitzea» da bere ustez, eta hori «maitatua sentiaraziz, mugak jarriz eta ardurak emanez, baina aldi berean, libertatea eskainiz ere lortzen da».

sobera errazteak» ez duela laguntzen dio: «halakoetan ez dituzte abildadeak ateratzen».

Goiak «kantitate eskaintzea kalitatea eskaintzea bezain garrantzitsua» dela adierazi

du: «haurrek gurasoen presentzia behar dute». Bere irudiko, «sistemak haurraren ongizatea lehentasuntzat hartzean, gizarte osasuntsua lortzen ahal izanen dugu. Haurraren behar

fisiko-emozional eta sozialak beteak diren heinean, heldu osasuntsu bat lortuko dugu. Mundua alda dezakegula sinetsi behar dugu, eta gure partetik ahal duguna egin».

Euskararen Lege berria eskatu du Herriko Etxeak

«Hizkuntza-eskubideak herritarren oinarritzko eskubideak dira, baina gaur egungo legeak mugatu egiten dizkie herritarrei»

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuari Euskararen lege berria era dezan eskatu dio Udalak, «oinarri sendoak izanzen dituen, herritar ororen hizkuntza-eskubideak berdintasunean bermatuko dituen eta, euskara Nafarroa osoan ofizial izanik, gizartearen kohesioa bermatuko duena hizkuntzari etorkizun hobea eskainiz». Aldeko hamar botorekin eta UPN-ko zinegotziaren abstentzioarekin onartu zen.

Mozioak azaltzen duenez, «urtetan, euskaldunok paira-

tu behar izan dugu gure hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa, Nafarroan, eta lurraldearen zati handi batean eskubideen aitortza eza. Euskaraz bizitzeko proiektuetan buru-belarri aritzeaz gain, euskararen garapenaren aurkako politikari aurre egin beharrean izan gara, gehiegitan. Hizkuntza-eskubideak herritarren oinarritzko eskubideak dira, baina Euskararen Legeak mugatu egiten dizkie herritarrei. Euskaraz bizitzeko eskubidea tokiaren arabera baizik ez zaio aitortzen herritarri».



UTZITAKO ARGAZKIAK

Zahar-etxeak saria dekorazio lehiaketan

Biok bentak antolatutako Eguberrietako dekorazio txapelketan parte hartu du San Jose Zahar-Etxeak. Txapelketan parte hartzeko baldintza Biok bentara argazki bat bidaltzea zen. Facebooken *Gustuko dut* gehien zituena zahar-etxeokoa izan da (Ramon Garcia eta Ane Igartiburu irudikatuz) eta 400 euroko saria eskuratu du.



Amestu nahi duzun eskola

948 65 00 09 + bera

Centro Sagrado Corazon Jesusen Bihotza Ikaiteia

Zatoz gure ikas-komunitatera!
Aurre izen-ematearen epea otsailaren 4tik 8ra.



Bikote bat Santa Barbarako Igoeran, umoretsu. UTZITAKO ARGAZKIA

Parte-hartze handia izan da aurten ere XII. Mendi Egunean

57 bikotek eta hirukotek parte hartu zuten Santa Barbarako Igoeran eta 45 ttiki jautsi ziren Garmendikobordatik herrira

TTIPI-TTAPA

Arrakastatsua suertatu da aurten ere Mendi Egunaren hamabigarren edizioa urtarrilaren 12an, Xabier Zubieta, Loro Pikabea eta Xabier Saralegi Taillon mendian hil zirela hamabi urte bete direnean.

Larunbat goizean, eskalada tailerra egin zen Toki Ona kiroldegian, eta ehun bat neska-mutikok parte hartu zuten, eskalada eta oreka ariketak eginez, rappel, boulder eta gisakoak. Arratsaldean, Santa Barbarara oinezko mendi ibilaldia eta binakako kronoigoeira egin ziren eta Manttaleko hurreklasterka ere egin zuten. Arratsaldeko 3etan abiatu ziren oinezko mendi ibilaldian parte hartu zuten 40 bat lagunak eta Larretagainera joan ziren, korrikalariak animatzera pasatzerakoan. Dena den, mendian goiti eta kaxkoan ere

bertze hainbat lagun bildu ziren ikustera eta animatzera. Helduen 5,5 kilometroko erlojuaren kontrako lasterketan 53 bikotek eta lau hirukotek hartu zuten parte. Denborarik onena Mikel Duhart eta Damien Saint Martinek egin zuten (25:40). Rikardo Baroja eskolaren paretik minutuero atera ziren partehartzaileak eta jendearen animoak bildu zituzten ibilbide osoan. Manttaleko korrikalari aunitz atera ziren proban. Ttikien 22 bikotek ere parte hartu zuten Garmendikobordatik helmugaraino egindako lasterketan.

KULTUR ETXEA LEPO BETE ZEN MENDIZALEEN PROIEKZIOETAN

Probaren ondotik, partehartzaileentzako berendua eskaini zen eskolako jangelan eta oparienez zozketak ere egin ziren. Jakina denez, Santa Barbarako Igoerarako nahiz mendi irteerarako izena emateko ez da deus ordaindu beharrik, baina behar bereziak dituzten familiak biltzen dituen Bortzirietako Guztioak taldearen aldeko kutxa ere jarri zuten, borondatez dirua eman nahi zuenarentzat. Talde honetako neska-mutikoez ere parte hartu zuten goizeko eskalada tailerrean.

Proiektzioak

Beranduago, jendez gainezka ageri zen Kultur Etxean, herriko mendizaleek egindako bi espedizioen berri eman zuten, proiektzioen bidez.

Lehenik, *Aurrepirinioetatik, Europako gailurrera* proiektatu zuten, pasa den udan Ibai Iturria, Imanol Moreno eta Ugaitz Ado beratarrek eta Xabi Etxegarai lesakarrak Elbrus mendira, Europako mendirik altuenera, egindako igoera erakusten duen dokumentala. Laukoteak Elbrus nola koroatu zuen erakusten du dokumental, duela urte batzuk Pirinioetan hasita.

Horren ondotik *Manaslu edo baloreen aukeraketa* dokumentala eman zuten, Julen Errandonea beratarra eta Alberto Urtasun iruindarraren eskutik. Dokumentalean zortzimilako gailurretik hurbil zeudenean bertze alpinista bat laguntzen gelditu zirela erakusten dute, gailur egitea eragotzi ziena, baina, aldi berean, elkartasuna eta mendizaletasuna zer den erakutsiz. Dokumentala ikusi ondotik, ikusleen galderak erantzun zituzten.

Jabier Muguruzak 'Leiho bat zabalik' utziko du

Jabier Muguruza musikari eta abeslariak *Leiho bat zabalik* kontzertua eskainiko du urtarrilaren 26an, larunbatean 19:30ean Kultur Etxean. Sarrera 8 euro gostako da. Irungo musikariak Ander Mujika izanen du lagun gitarra elektrikoarekin.

Magia ikuskizuna eta Musika Eskolako emanaldiak

Oliver magoak *Balio magikoak* ikuskizuna eskainiko du hilaren 27an, igandean 17:00etan Kultur Etxean (sarrera 6 euro). Bertzetik, Musika Eskolako emanaldiak izanen dira egunotan (18:00): gitarra (21ean), haize-tresnak (22an), txistua (28an) eta perkusioa (29an).

Kanpoko trafiko astuna N-121 Atik ez pasatzeko eskaria

N-121A inguruan irteera edo helmuga ez duten merkantzien garraioa bertze errepide alternatiboetatik joateko neurriak hartzea eta behar diren hitzarmenak egitea eskatu dio Udalak Nafarroako Gobernuari. Gisa horretako neurriak hartu dituzte Errioxako eta Kataluniako administrazio publikoek ibilgailu astunen proportzioa handia den errepide nazionaletan (N-232, N-11, N-240 eta N-340). Mozio horren alde bozkatu zuten hamar zinegotzik eta abstentziora jo zuten Herrira taldeko batek.

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESIN BERA

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMEDUAK

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

xuga

tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera



Beti Gazteko neskak eta mutilak, Zeberion bigarren. UTZITAKO ARGAZKIAK

Urte hasiera bikaina izan du Beti Gazteko sokatira taldeak

Mutilek 680 kiloko Euskadiko txapelketa irabazi dute eta neskak nahiz mutilak bigarren izan dira Zeberioko nazioarteko txapelketan

AITOR AROTZENA

Sasoiko ekin dio Beti Gazteko sokatira taldeak denboraldi berriari eta urtarrilaren 12an eta 13an izan zituen lehen hitzordu garrantzitsuetan emaitza bikainak eskuratu zituen. Lehenbizikoan, Gernikan, mutilek, Euskadiko 680ko txapelketa zutenjokoan.

Beti Gazte ezustea eman eta txapela lortu zuen. Izan ere, normalean pisu arinagoe-tan moldatzen dira lesakarrak, baina aurten sasoiko daudela erakutsi dute.

Beti Gazte txapelkunaren ondotik Ibarra (Gipuzkoa), Murueta (Bizkaia), Zuraide (Lapurdi), Ñapurak (Lapurdi) eta 6 Conceyos (Asturias) sailkatu ziren.

Beti Gazte zortziko honekin lehiatu zen 680 kiloko txapelketan: Karmelo Mitxelena, Julen Palenzuela, Joxe Angel

Mitxelena, Mikel Apeztegia, Beñardo Iantzi, Beñat Ordoki, Eneko Saldias eta Gerardo Telletxea, Pascual Taberna erakusle zutela.

Nazioarteko txapelketa Zeberion

Biharamunean, Nazioarteko sokatira txapelketan parte hartu zuten Beti Gazteko tiralariek eta emaitza ederrak lortu zituzten.

Proba nagusian, gizonezkoen 640 kilokoan, Holandako Monnickendam suertatu zen irabazle, tiraldi guztiak irabazita. Bigarren Beti Gazte izan zen eta hirugarren Gaztedi. Emakumezkoetan, 520 kilotan, Gaztedi izan zen irabazle, Beti Gazte bigarren eta Txantrea hirugarren. 600 kiloko txapelketa mistoan, azkenik, Gaztedi nagusitu zen eta gazte mailan Goiherri.

'Herri txiki, infernu handi' saioaren grabaketa

ETBko *Herri txiki infernu handi* grabatzen aritu ziren hilaren 15ean eta orain, 24an, ortzegunetan 20:00etan bideo proiektzioa, Zuhaitz eta Pagadiren monologoak eta Lizasoren bertsuak izanen dira Harriondan. Gonbidapenak Turismo Bulegoan (16 urtetik goiti).

Elutxa txarangak galaz borobildu du 5. urteurrena

2018a urte berezia izan zen Elutxa txarangarentzat. Bosgarren urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu zituen urte osoan eta behar bezala, borobiltzeko, taldeari izena ematen dion parajera mendi ateraldia eta gala-afaria egin zuten Kasinoan.

Eguberrietako frontenis txapelketa

Abenduaren 29an jokatu zen nesken Eguberrietako IV. frontenis txapelketa. Lau bikotek parte hartu zuten. Txapelkunak Miren Egues eta Irantzu Etxebeste izan ziren, bigarren Jone eta Izaskun, hirugarren Amaia



UTZITAKO ARGAZKIA

eta Nerea eta laugarren Maider eta Saioa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Erretiradi txapelkun Donezteben

Erretiradi taldeak irabazi du Donezteben Eguberrietako VIII. Areto Futbol Txapelketa. Finalean Baztango Basaburua taldeari irabazi zioten. Gainera, Urki Txoperenak finaleko jokalaria onenaren saria jaso zuen eta Jon Ubiriak txapelketako jokalaria onenarena.

DenakBat
Hemen erabili

kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Jauzena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak**

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



Lander Lasaga ezkerrean. Eskuinean, Julene Danboriena. OIHAN IPARRAGIRRE



IRUNE ELIZAGOIEN

Herriko pilotariak txapelketaz txapelketa

Urte hondarrean, Bortziritako Binakako Txapelketan aritu ziren eta herriko pilotari guztiekin torneo bat ere jokatu zuten

IRUNE ELIZAGOIEN

Abenduaren 22an jokatu ziren Bortziritako Binakako XVIII. Txapelketako finalak Lesakan, eta Lander Lasaga herritarrak txapela jantzi zuen Andde Maritorea beratarra lagun zuela. Etxalartik, Julene Danboriena eta Markel Irazoki bikoteak ere parte hartu zuen, baina tanto bakarragatik finaletik kanpo gelditu ziren.

Bertzetik, urte bukaerarekin herriko pilotarietako torneo ere jokatu zuten. Bortz mailetan banaturik, 33 pilotarik parte hartu zuten eta guztira 54 partida jokatu zituzten. Ttikietan,

Unai Irazokik 22-9 irabazi zion Erik Igoari; benjaminetan, lehen mailan, Luken Ansalas eta Mattin Aguedak 22-21 irabazi zieten Oihan Irisarri eta Asier Telletxeari eta bigarren mailan Markel Irazokik 22-4 irabazi zion Amets Sanzberrori; alebin eta infantilen mailan, Jon Gastearena eta Lander Lasagak 22-18 irabazi zieten Kemen Ansalas eta Aitor Azkarragari; kadete eta jubentzetan Joseba Otxoteko eta Joseba Telletxea 22-21 nagusitu ziren Andoni Otxoteko eta Asier Martinen aurka. Bada bai pilotarako afizioa Etxalarren!

Bingoa Herriko Ostatuan

Azken urteetako ohiturari segituz, aurten ere jende aunitz bildu zen urte berriarekin batera Herriko Ostatuan egin zen bingoan jolastera. Argazkiko sei lagunak zortedunak izan ziren eta ilara eta bingoa egiteagatik sari ederrak eraman zituzten. Zorionak!



MARI LUZ ARIZTEGI

Gantxillo eta yoga ikastaroak

Abendu hondarrean Elutsa ostatuan egin zuten hamaiketako ederrarekin bukatu zuten punto eta gantxillo ikastaroa Larraburuak antolatutako tailerren ibili diren bortz emakumeek. Urtarrilaren 18an yoga ikastaroarekin hastekoak ziren. Izen-ematea 948 63 51 66 edo 664 38 73 43ra deituz.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

BIDALI PAKETEA DHLrekin XAGUren BITARTEZ

ZERBITZU BERRIA ***** BILKETA-PUNTUA

BIDALI PAKETEA XAGU LESAKAREN BITARTEZ
www.dhiparcel.es/es/particulares.html

XAGU LIBURUDENDA LESAKA

XAGU Koskontako bidea, 7 LESAKA Tel: 948638232 lesaka@legarra.org



Mugako Egiko bidea. OSKAR TXOPERENA

Indarrean da bide eta pistak arautzeko ordenantza berria

Bide bakoitzaren sailkapena dakarki eta horren arabera, bide horietan bete beharreko arauak

TTIPI-TTAPA

Joan den abuztuan publikatu zen Nafarroako boletinaren herriko bideen arautegi berria. Aiert Retegi zinegotziaren erranetan «inguruko herrietan lehendik onartua zuten erregularizazioa eta hemen ere beharrezkoa zela pentsatu ondotik, euren arautegia izan da Igantzikoaren oinarria». Urtebete inguruko ibilbidea izan du proiektuak, behin betiko onarpena ailegatu arte eta dagoeneko indarrean dago. Arautegiaren edukiaz galde-tuta hau erran digu zinegotziak: «batetik herriko bide eta pisten

inventarioa egiteko konpromisoa ageri da arautegian. Horrek bide bakoitzaren sailkapena dakarki eta horren arabera bide horietan bete beharreko arauak, ibilgailuen erabilerari dagokionez gehienbat. Bide publikoak ixteko debekua ere ageri da. Orain arte paratu izan diren atakak kendu eta langa kanadarrak paratzen hasiak gara, Iturren-bordako bidean, erraterako. Jakin behar dugu ibilgailuekin bideetatik ibili beharko dugula nahitanahiez, bertzela mendi eta soroak hondatu bertzerik ez direlako egiten».

Urteko batzarra ilbeltzaren 26an izanen du Biltokik

Bilerak pilatzen ari zaizkie Biltokiko bazkideei. Heldu den larunbatean, ilbeltzak 26, ohi-ko batzar nagusia izanen dute. Urteroko gaiak ukituko dira, baina barne araudiko zenbait atal berritzeko proposamena izanen da gai nagusia, egoitzaren aldatetarekin batera. Euskal Herriko XI. mus txapelketaren kanporaketa ere jokatu zen Biltokin ilbeltzaren 12an. 13 bikoteen artean Anuntxi Txoperena eta Axun Iribarren nabarmendu ziren, Xabat Matxikote eta Joel Oronozi finalean irabazi ondotik.



OSKAR TXOPERENA

Otsailaren 22an eta 23an ospatuko ditugu inauteriak

Inauterietako datak jakin ditugu: otsailaren 22a eta 23a. Agudo paratuko dituzte betiko lekuetan moztueroen zerrendak, nahi duenak izena emateko. Elizateko ostatua apirilean irekitzeko asmoa dutenek inauterietako bi egun horietan ere atek zabalduko omen dituzte.



OSKAR TXOPERENA

Urarekin burukominak igerilekuan

Urteak zituen igerilekuak urari eusteko arazoekin eta larritzen joan da denborarekin. Lanean sartu dira herriko langileak irtenbidea bilatzeko. Konponbidea, ordea, ez da samurra suertatzen ari. Bi zulo haundi ireki behar izan dituzte bazterretan baina isuriaren jatorriak ihes egiten die oraindik.



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarbeld@hotmail.com
www.zumarbeld.es



MARITX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu

© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

Mendiko aseguru egiteko aukera Ekaitza Elkartearekin

Lehenbiziko aldiz federatu nahi dutenek otsailaren 28a baino lehen jakinarazi beharko dute

NEREA ALZURI

Aurten ere, Ekaitza Elkartearen bidez, mendiko aseguru egiteko aukera izanen da. Iaz federatuak izanez gero, edozein aldaketa egiteko edo baja emateko otsailaren 15a baino lehen abisua eman beharko da Xabi Zugarramurdiri.

Bertzalde, lehenbiziko aldiz federatu nahi duenak otsailaren 28a arteko epea izanen du izena emateko. Alta emateko, modalitatea aukeratu eta Norkasun Agiriaren kopia Whatsappez bidali behar zaio Xabi Zugarramurdiri (647 75 91 40).

Modalitateak

Hainbat modalitate daude aseguru egiteko eta estalduraren eta adinaren arabera aldatzen dira prezioak. B modalitateak estatu espainiarra hartzen du kontuan, C modalitateak estatu espainiarra, Frantziako Pirinioak, Andorra, Portugal eta Marokoko Atlas eta D modalitateak mundu osoa. 7.000 metrotik goitiko espedizionarioentzako ere bada aseguru, baita bertze gehigarri batzuk ere. Nafar txartela edo FEDME txartela aukerakoak dira.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Inauteriak otsailaren 14tik 16ra

Oraindik aste batzuk gelditzen baldin badira ere, Mozorro Zuriak inauteriak prestatzen ari dira. Aurten, otsailaren 14an, 15ean eta 16an izanen dira herriko inauteriak. Hurrengo TTIPI-TTAPA aldizkarian xehetasun guztiak emanen dizkizuegu.

UEMaren Pauso eta Salto gazte topaketak Arantzán

N. ALZURI

Gazteak euskal hiztun gisa sentsibilizatzeko, kontzientziazteko eta aktibatzeke ekimen ibiltaria prestatu du UEMAK ekainerako. Gazte topaketa eta udalekuen ondotik, udalerrri euskaldunetako gazteen topaketek segida izanen

dute, Pauso eta Salto gazte topaketekin. Udalerrri euskaldunetako 15 eta 18 urte arteko gazteei zuzendua da. Hirugarren ekimen hori, Usurbildik hasi eta Oiartzun eta Beratik pasa ondotik, ekainaren 28an herrira ailegatuko da eta 30a arte bertan izanen dira.



DONEZTEBE FUTBOL TALDEA

Herritarrek futbiton bikain Donezteben

Argazkiko kuadrillak Donezteben egin zen Eguberrietako futbito txapelketan parte hartu zuen. Gainera, aski fin moldatu ziren Unai, Borja, Ander, Jon, Iosu, Imanol, Jon, Markel, Ibai, Jabi eta Julen, sailkapen nagusian laugarren gelditu baitziren.

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

anterola
Tekniko instalatzailea

**ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA**

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602

LABE ZAR

Astelehenetik
ortziralera:
07:15etik
aitzinerara

Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara

948 631 076 • BERA



Julian Iantzi lehenen izan zen Nafarroako sagardo berria dastatzen. TTIPI-TTAPA

Julian Iantzik ireki du Nafarroako txotx denboraldia Lesakan

Dolarea elkarteak osatzen duten bortz sagardotegietan 250.000 litro inguru kupeleratu dituzte aurten

TTIPI-TTAPA

Lesakako Linddurrenborda sagardotegian ireki zuten urtarrilaren 11n, 2019ko txotxeko sagardotegi denboraldia Nafarroan. Julian Iantzi telebista aurkezle lesakarra izan zen sagardo berria dastatzen lehena. Linddurrenbordarekin batera, Lekarozko Larralde, Berueteko Behetxonea, Aldazko Martitxonea eta Lekunberriko Toki Alai sagardotegiek osatzen dute Dolarea, Nafarroako Sagardotegien Elkarte eta aurten 250.000 litro inguru kupeleratu dituzteeta Linddurrenbordan, 23-25.000

litro inguru egin dituztela aipatu zigun Juan Mari Lopez nagusiak, «joan den urtean baino guttixeago». Normalean etxeko sagarrarekin moldatzen bada ere, aurtengoa sagar urtea izan ez denez, «etxekoak, Arantziatik eta Oiartzundik ekarritakoak eta Donibane Garazitik ekarritakoak ere erabili ditugu». Egurrezko kupele bat baldin badute ere, Linddurrenbordako gehienak altzairu erdoilezinekoak dira: «Poliesterrekoak ere gero eta zabalduagoak daude, bi geruza dituztenez kondentsazio guttiago egiten zaie, baina

horietatik ere bakarra daukagu gurean», aipatu digu Juan Mari Lopezek.

Lehendik ere hirutan ireki da Nafarroako sagardotegi denboraldia Linddurrenbordan. 2006. urtean Andoni Egaña bertsolariak ireki zuen, 2010ean Sebastian Gonzalez pilotari azkaindarrak eta 2014an, Donato eta Patxi Larretxea anaiak arduratuko ziren txotxa irekizteaz. Aurten, erran bezala, Julian Iantzik dastatu zuen lehen sagardoa. Aitzinetik, Joala Jo taldekoek bere emanaldia eskaini zuten, Sagardantza dantzatzuz eta Kirikoketa joz. Patxi Larralde txistulari zutela, Marijo Indabere, Uhaina Apezetxe, Mairu Garisoain, Oianko Garde eta Xabi Torres aritu ziren lan horretan.

Julian Iantzirekin batera kirol eta kultur munduko bertze hainbat aurpegi ezagun hurbildu dira Linddurrenbordara: Juanjo Oroz eta David Latasa txirrindulari ohiak, Koteto Ezkurra erremontelaria, Unai Laso, Joanes Bakaikoa eta Iosu Eskiroz esku-pilolariak, Uxue Fraile mendi-korrikalaria, Inaxio Perurena harri-jasotzailea, Donato eta Patxi Larretxea anaiak, Manolo Arozena, Bittor Elizagoien, Julen Zelaia, Joxe Juan Zubieta *Etxabe* eta Iban Garro bertsolariak, Jose Luis Etxegarai Lesakako alkatea eta Koma musika taldeko abeslaria eta El Drogasen batera-jolea den Brigi Duke, bertzeak bertze.

NIRE USTEZ



JULIAN IANTZI
TELEBISTA AURKEZLEA

«Nonahi noala ere sagardoa eskatzen dut»

Ez dut beti sagardoa edan. Aitagarreba ezagutu nuenean, Irungo Ibarla aldera meriendatzera joan eta bokado batekin sagardoa hartzeko ohitura zuen eta harekin hasi nintzen pixka bat. Hasieran ez nuen sobera gustuko, baina gero pixkanaka gustatzen hasi zitzaidan eta nahiz eta alkohol gutti duen, erran daiteke alkohola duen gustuko edari bakarria dela. Nonahi eskatzen dut. Euskal Herrian ez da zaila, baina Euskal Herrikan kanpo ere, uste nuen zailago izanen zela, eta bada sagardoa. Aunitzetan Asturiasekoa izaten da, diferentea da, baina hura ere lasai aski edaten ahal da. Edari freskagarria da, eta gustura edaten dena, edozein janariarekin hartzen ahal dena. Ez dut aunitz edaten, baina otorduetan zerbait hartzekotan, beti sagardoa izaten da. Sagardotegietara joateko ohitura ere badaukat, familiarekin eta lagunekin. Urtean ez dakit zenbat, baina joaten naiz, gustatzen zait bertan izaten den giroa.

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

caser
residencial
www.caserresidencial.es

Laguntza zerbitzuak

- Medikua
- Farmazia
- Erizaintza
- Psikologoa
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

- Animazio soziokulturala
- Nutrizioa
- Podologia
- Odontologia eta dentista
- Logopedia
- Audioprotesista

Bestelakoak

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Erlijio zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntza
- Laguntza teknikoaren kudeaketa

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Inauterietako giroan murgiltzeko prest daude herritarrak

Ortziralean eskolan ere hasiko dira eta asteburu osoko ospakizunak igandeko desfilearekin borobilduko dira

MAIDER PETRIRENA

Aitzineko alean iragarri zen bezala, asteburu honetan inauteri giroan murgilduko da herria. Hasteko, urtarrilaren 25ean, ortziralean ospatuko diren eskolako inauteriak presatzen hasiak dira.

Aurtengoan gaia, inauteriak herrira datozela iragartzen duten kaldereroak izanen dira. Egitarauari dagokionez, 14:20ean etxean bazkaltzen dutenak, eskolara jantziak etorriko dira. Jangelakoak, berriz, eskolan prestatuko dira bakoitza bere gelan. 15:00 aldera, tikiak eta handiak, frontoian elkartuko dira. Bertan kantak abestu eta jo, eta kalejira hasiko dute. 16:00 aldera frontoian akituko dute

ibilaldia. Eskolatik jakinarazi dutenez, «gurekin ongi pasatzeko gogo duen guztia etor daiteke, gurekin batera kantuan ibili eta zarata egitera. Mozorroak etortzera animatzen zaituztegu».

Gasatek ere ortzirale goizean hasiko dira inauterien harahonatekin. Ariztigainen gosaldutik, baserriz baserrir ibiliko dira. Arratsean, 25 urte beteko ditu emakumeen afariak. Larunbatean ere eskolan ibiliko dira gasatek eta igandean, nola ez, karrozen desfilea izanen da. Aipatzekoa da opilak, gaztainak, tortilla, salda eta ardoa banatzen duen karroza gazteena dela eta ez Ulibeltzak elkarteara, aitzinekoan aipatu bezala.



Eskolako kaldereroek iragarriko dituzte aurten ere inauteriak. MAIDER PETRIRENA

Eskiatzera irteera egingen dute eskolako ikasleek otsailaren 10etik 15era

MAIDER PETRIRENA

Eskolako 5. eta 6. mailakoak otsailaren 10eko astean izanen dute aukera eskiatzera joateko.

Autobusa Sunbillako plaza-tik aterako da otsailaren 10ean (igandea) 15:00etan.

Sunbillara, otsailaren 15ean, 18:00-18:30 aldera bueltatzea aurreikusita dago.

Sunbilla, Legasa eta Saldiaako ikasleak Izabako Onki Xin ostatuan egingen dute lo. Iturango ikasleak ordea, Izabako Hotelean egingen dute lo.



DONEZTEBE FUTBOL TALDEA

Gasatek Doneztebeko futbito txapelketan

Doneztebeko Eguberrietako areto futbol txapelketan parte hartu zuen herriko talde honek: Gorka Antuña, Xabier Mariezkurrena, Jon Aranbillet, Oier Aldabe, Asier Antuña, Jon Mikel Gaztelumendi, Aitor Etxalar, Eneko Herrera eta Aritz Bereau (azken hori argazkian falta da).

Hodei Gastesi eskubaloi kontzentrazioan

Urtarrilaren 13an Tafallan alebin mailako eskubaloi jokalarien kontzentrazioa egin zuten. Doneztebeko Erreka eskubaloi taldeko lau jokalaria deituak zeuden baina hiruk parte hartu zuten azkenean. Horien artean Hodei Gastesi Etxebeste sunbildarra ere deitua izan zen. Ailegatu eta aurkezpena eta kamiseten banaketa egin zituzten. Ondotik taldeen entrenamendua eta bukatzeko bi partida jokatu zituzten.



ALAITZ ETXEBESTE

Egitaraua

Goizetan Ipar Eskia egingen dute egunero. Arratsaldetan ondorengo ekintzak egingen dituzte:

- Astelehena: koreografia eta igerilekua.
- Asteartea: herri-kirolak.
- Asteazkena: Julian Gayarre Museoa eta NIZ.
- Ortzeguna: festa / Xeia (Erronkari).

Doneztebeko Mendaur DBH-ko 1. mailakoak ere Izabara eskiatzera joanak dira. Horien artean zazpi sunbildar joan dira asteaz gozatzerara: Oihan Lujanbio Sanchez, Markel Agesta Hernandorena, Egoi Irigoien Arretxea, Iraitz Iparragirre Zunda, Ane Etxalar Zugarramurdi, Magaly Mariñelarena Irazoki eta Maialen Arretxea Otxandorena.

Liburutegia otsailaren 4an irekiko da

Dagoeneko erdia digitalizatu dute eta bertze erdia aurten egingen dute. Dena dela, liburutegia ez dute itxiko

MARGA ERDOZAIN

Digitalizazio lanak akituta, liburutegi zerbitzua otsailaren 4an martxan jarriko da. Ohiko ordutegia izanen du, hau da, astelehenetik ortziralerara, 17:00etatik 20:00etara.

Irailetik otsailera bitarte liburutegian digitalizazio-lana egiten aritu dira. Horretarako, Nafarroako Gobernuak, esleipen bidez, kanpoko enpresa bat kontratatu zuen. Dagoeneko irakurleen aretoko aleak digitalizatuak daude: narratiba, haur eta gazteen aleak, baita ikus-entzunezko materiala ere. Une honetan ale kopuruaren erdia da digitalizatua dagoena. 2019an bertze erdia digitalizatuko dute, baina liburutegia itxi gabe.

Zerbitzuen erabilera

Hemendik aitzinera mailegua erabili ahal izateko erabiltzaileek Nafarroako Liburutegietako karneta egin beharko dute eta Liburutegi Sareak ezartzen dituen baldintzak eta protokoloak jarraitu beharko dituzte. Norbanakoen bazkidetzaz gain, talde bazkidetza egiteko



Haurrak liburutegian. ARTXIBOKOA

aukera ere izanen da mailegu bereziak egin ahal izateko.

Katalogoa sarean

Digitalizazioaren ondorioz, Doneztebeko liburutegiko katalogoa gainerako liburutegietako katalogoak bezala, sarean ikusi ahal izanen da. Erabiltzaileek zein ale eta nola dauden etxetik ikusi ahalko dute. Horretaz gain, eskaerak, erreserbak egiteko aukera ere izanen dute.

Euskaltegian matrikula epea zabalik

IKA euskaltegiak urrian martxan jarri zituen taldeetan izena emateko aukera bada oraindik. A1, B1, B2 eta EGA edo C1 ikastaroetan parte hartzen ahal da. Malerrek errolatuak dauden ikasleek doan matrikulatzen ahal dira. Interesatuak 948 45 15 55era dei dezakete.

Musikoterapia tailerra otsailtik aitzinerara

Otsailaren 1ean hasita guztira hamar saio egingen dira. Doneztebarrek 60 euro ordaindu beharko dituzte eta bertakoa ez denak 70 euro. Udalak ekimen honi diru-ekarpena egiten dio. Tailerra ortziraletan Herrigunean egingen da. Informazio gehiago: 655 74 76 95.

Hurrengo zine emanaldiak urtarrilaren 27an izanen dira

M. ERDOZAIN

Erreka Guraso Elkarteak antolatutako lehendabiziko emanaldian, 16:30ean *Orm en el Reino de las Nieves* izeneko pelikula pantailaratuko da. Udalak antolatutako bigarren emanaldian, 18:30ean, *Jurassic World* filma ikusteko aukera

izanen da. Aipatu behar da Udalak bigarren emanaldiekin bildutako dirua MPS gaitzaren elkarteari emanen diola.

Bertzalde, *Oreina* pelikula urtarrilaren 27rako aurreikusia zegoen, baina banaketa arazoak direla eta, otsailaren 10ean pantailaratuko da.



DONEZTEBE FUTBOL TALDEA

Nafarroako eskolartekoan nagusi

Txapelketa borobila egin ondotik, San Miguel ikastetxeko neskek irabazi dute Osasuna Futbol Taldeak antolatutako eskolen arteko futbol txapelketa. Urtarrilaren 7an jokaturako finalean 4-0 irabazi zieten Iruñeko San Fermin Ikastolari. Gainera, Nerea Agestak jokalaria onenaren saria jaso zuen.



DONEZTEBE FUTBOL TALDEA

Areto Futbol Txapelketa arrakastatsua

Aurten zortzigarren urtez, Doneztebe Futbol Taldeak Areto Futbol Txapelketa antolatu zuen Eguberrietan. Urtez urte errotuz doan txapelketa da eta azken horretan 20 taldek eta 215 futbolzalek parte hartu zuten. Hurrengo hitzorduari begira jarriko da orain argazkiko lan-taldea.

'Erosi hondakinik gabe' kanpaina arrakastatsua

2.800 euroko balioa duten erosketa-bonoak oparitu dituzte eta 114 establezimenduk parte hartu dute Baztan-Bidasoaldean

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, 2018an ere hondakinak murrizteko helburuz prebentzio kanpaina burutu zuten Baztango Udalak eta Bortziriak eta Malerreka-kako Mankomunitateek. Oraingo honetan eskualdeko hainbat komertzioen laguntzarekin egin zen kanpaina eta helburua hondakin murrizpena izanik, erosketak hondakinik sortu gabe egin dituzten hainbat herritar sarituak izan dira.

Kanpainaren berri emateko Nafarroako Gobernuko eta Nafarroako Hondakin Par-tzuergoko Prebentzio bulegoek eskainitako *Bertakoa naiz, berrerabil nazazu* mezua zeramaten eta Nafarroan eginak ziren paperezko poltsak banatu zituzten establezimenduetan eta hilabete batean atxikitu-riko establezimenduetan poltsa horiek edo bertze edozein poltsa berrerabilgarri erabili eta erosketak poltsarik edo bilduki extrarik gabe egin zituzten herritarrek hainbat zozketetan parte hartzeko aukera izan zuten. Hondakinik sortu gabeko erosketa bako-



Zozketarako papertxoak ateratzen.

tzean zozketarako papertxo bat betez.

114 establezimenduk parte hartu dute eskualdean eta atxikituriko establezimenduetan gastatzeko 50 euroko berrogei erosketa bono eta 100 euroko bertze zortzi bonoz gain hondakin prebentzioarekin loturiko hainbat opari banatu ziren. Bortzirietako eta Malerreka-kako Mankomunitatetik eta Baztango Udaltetik diotenez, «kanpaina arras arrakastatsua izan da eta urtea zertxobait sentsibilizatuagoak hasteko aukera eskaini digu, ia horrela jarraitzen dugun 2019an ere!».

Bertze aldetik, egutegia ere banatu dute etxex etxe, informazio jakinagariarekin.

Otsailaren 1era aitzineratu dituzte Urrozko inauteriak aurten

JAIONE ARIZTEGI

Azken urteetan inauteri ofizialekin batera ospatu dituzte inauteriak urroztarrek. Aurten, ordea, bilera egin ondotik, aitzineratzea adostu dute eta otsailaren 1ean eta 2an, ortzirale eta larunbatean, ospatu-ko dituzte. Herritarrek mozo-rrua prestatzeko denbora gutti izan arren, gogoia bizi-bizi dute.

Larunbata egun handia

Data aldatuagatik, egitaraua bere horretan mantenduko dute: ortziraleko afariarekin



Urrozko gazteak inauterietan.

hasiko dute mozo-rru besta eta egun handia larunbata izan da. Haurrak herrian ibiliko dira eskean; gazteak, berriz, baserri baserri. Musikak eta umoreak ez dute hutsik egingen.



ARANTXA ITURRALDE

Mañuela omendua Beintza-Labaienen

Aurreko batean aipatu bezala, ehun urte bete zituen Beintza-Labaiengo Mañuela Ibarrola Telletxeak azaroaren 28an. Udalak ere omenalditxo bat egin dio. Jon Telletxea alkateak eta Alejandro Saldias zinegotziak, lore-sorta bat eta oroigarri bat eskaini diote Mañuelari, herriaren izenean.

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizatu
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAJA IREKIA
102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • T.943 623 130

BERA

KATEA BIKE

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

PINARELLO

ORBEA CONDA SCOTT BH GIANT LIV MERIDA

Larunbateko afariarekin hasiko dituzte inauteriak

Herritarrentzat egun haundiena asteartea bada ere, larunbatean hasi eta asteazkenera arte ez dute geldirik egoteko tarterik

FERMIN ETXEKOLONEA

Joaldunak, mozorroak eta otorduak. Horiek dira herritarrentzat inauterietako hiru osagai nagusiak. Batzuek joareak errege bezperan atera zituzten eta ordutik prest utzi dituzte. Sukaldari eta zerbitzariak, egun handietan deus falta ez dadin, leanean hasiak dira eta han eta hemen mozorroak egiten ari dira.

Asteartea egun handia

Herritarrentzat egun handia asteartea, urtarrilaren 29a, izanen da. Dena dela, larun-

batean, urtarrilaren 26an, afari eder batekin emanen diete hasiera inauteriei. Igandean ere ez dute hutsik egingen eta mahai-inguruko otorduei musika gehituko diete, Modesto akordeoilariaren eskutik. Txixilu guraso elkarteak antolatuta haurrendako merienda ere izanen dute.

Astelehenean herriko mozorro eta joaldunek iturendarrak bisitatuko dituzte eta asteazkenean, kontuak egiteko eguna izanen dute. Xehetasun gehiago TTIPI-TTAPAREN 725. zenbakian.

Herritarrek eskolarteko futbol txapelketan

San Migel eskolako neskek eskolarteko futbol txapelketa irabazi dute. San Fermin eskolakoen aurka jokatu zuten finala. Uxue Santesteban eta Zaira Bendoirok bina gol sartu zituzten, 0-4 emaitza lortuz.



DONEZTEBE FUTBOL TALDEA

Apirilaren 8an herritik pasako da Korrika

Klika lelopean apirilaren 4tik 14ra bitarte 21. Korrika izanen da. Garestik abiatu eta Gasteizen akituko den lasterketa herritik pasako da apirilaren 8an, astelehenean. 16:00 aldera aurreikusitako (Iturenen 15:20 aldera). Dagoeneko kilometroak erreserba daitezke.

Gaztetxoendako mozorro besta igandean

Herriko haur eta gaztetxoek mozorro besta izanen dute urtarrilaren 27an. 17:00etan elkartu eta herrian barna ibiliko dira. Ondotik, musika eta dantza izanen dituzte. 18:00etan meriendan bilduko dira. Izen-ematea zabalik dago, urtarrilaren 25a arte, 3 eurotan.



IZASKUN ZUBIALDE

Errege bezpera pasata inauterien zain

Urtarrilaren 5ean, goizean goizik 30 neska-mutil baserri baserri eta etxez etxe eskean ibili ziren. Arratsaldean lasaitasuna izan zen nagusi eta ondotik, herritarrek afariak izan zituzten. Irazu eta Gaztelumendiren eskutik, bertso ederrak aditu zituzten. Orain inauterien esperoan daude.



UTZITAKOIA

Hamar bikote mus txapelketan

Urtarrilaren 11n Euskal Herriko XI. Mus Txapelketako kanporaketa jokatu zen herrian. Hamar bikotek hartu zuten parte eta Txomin Hualde eta Jabier Santesteban *Martux* izan ziren txapeldunak; bigarrenak, berriz, Martin Santesteban *Vespa* eta Nagore Diaz. Bi bikoteok aurrera egitea lortu dute.

Inauterietako zorrak kitatzeko eguna otsailaren 2an

Herriko dantzarien saioa eta egur-probak izanen dituzte goizean herriko plazan

ARKAITZ MINDEGIA

Inauteriak borobiltzeko Kontu Eguna izanen dute otsailaren 2a, larunbata, iturendarrek. Egindako otorduak eta musikariak ordaintzeko hitzordua- ren bueltan, egun osoko egitaraua antolatu dute.

Herriko dantzarien saioarekin hasiko dute eguna. Plaza musikaz eta dantzaz girotuko dute. Emanaldiaren ondotik, herri-kirolariek hartuko dute lekukoa. Joan den urtean bezala, aurten ere, egur-probak (ebakitze-, garraiatze-, pilatze-probak) eginen dituzte. Pro-

betan parte hartu nahi dutenek Herriko Ostatuan eman dezakete izena. Joan den urtean bezala, probetarako erabilitako egurra zozketatuko dute (zozketa-txartelak bi eurotan salduko dituzte) eta aurten lortutako dirua Pulunpa eskolarako izanen da.

14:00 aldera mahaiaren bueltan bilduko dira. Aurtengoan Maialen Lujanbio eta Agin Laburu bertsolariak izanen dituzte. Arratsaldean, berriz, Hauspolarietako taldearen eskutik, dantzaldiaz gozatuko dute.



MARIA LARRETXEA ETA EDURNE MIKEO

Errege bezpera joaren soinupean

Egun hotza baina giro goxoa izan zuten errege bezperan. Joare hotsa izan zen nagusi. Egunez gaztetxoek astindu zituzten gerriak; iluntzean, berriz, helduek hartu zuten lekukoa. Batzuek zein bertzeendako gozamenak nahi bertze iraua zuen eta ordu tikiak arte mugimendua izan zen.

Nafarroako Bertsolari Txapelketan herritarrek parte hartuko dute

ARKAITZ MINDEGIA

2019ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa Tuteran abiatuko da otsailaren 9an. Aitzinetik aurrekanporaketak jokatu dituzte: urtarrilaren 18an Txantrea eta 19an Irunberrin. Azken horretan izan zen Egoitz Gorosterrazu. Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazu, berriz, final laurdenetan sailkatuta daude.

Untxalo otsailaren 9an Tuteran eta Iker Gorosterrazu otsailaren 10ean Urdazubin ariko dira. Beroketa gisa, hilaren 21ean Erratzuko Zubi



I. Gorosterrazu eta Untxalo bertsotan.

Puntan izan ziren. Xabi Maia eta Xabier Silbeirarekin batera herriko hiru bertsolariek hartu zuten parte eta indarrak hartu bitartean saio ederra eskaini zuten.

Pulunpa eskolakoak eskiatzera joanen dira

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak Izabara joanen dira eskiatzera. Otsailaren 10ean, igandean, abiatuko dira eta ortziralerara arte bertan egonen dira. Irteera hori Malerrekako eskola tikiatiko gainerako ikasleekin batera eginen dute.

Sokatira txapelketan ederki dabil herritarra

Oihana Mindegia herritarra Beti Gazte sokatira taldeko gainerako kideekin batera buru-belarri ari da txapelketetan. Urtarrilaren 13an Zerberion jokatu zuten nazioarteko txapelketan, 520 kilotan, bigarren izan ziren; Gaztedi taldea gailendu zitzaizen eta hirugarren, berriz, Txantrea izan zen. Bat akitu orduko hurrengoan hasiak dira; urtarrilaren 20an abiatu zuten Euskadiko txapelketa. Lerro hauen bidez herritarrek animoak bidali nahi izan dizkio- te.

Gazteek sagardotegira joateko asmoa dute

Bertze urte batez, herriko gazte taldeak sagardotegira irteera egiteko prestaketa-lanetan ari dira. Apirilaren 6an, larunbatean, zehaztu dute hitzordua. Aurten Oialumen eginen dute eta bazkariaren ondotik besta egiteko aprobeztatuko dute eguna.

Adimen emozionala lantzeko ikastaro trinkoa otsailean

Otsailaren 22tik 24ra bitarte, ortziraletik igandera, adimen emozionala lantzeko ikastaro trinkoa izanen dute Aurtizko Abarun aterpetxean. Donna Apellaniz Nieto, Lehen Hezkuntzako irakaslea eta hezkuntza emozionalean aditua, izanen da ikastaroaren gidaria. Interesdunek aterpetxera deituz edo bertara joanez informazio gehiago eskuratu edo izena eman dezakete. Bertaraturikoek ostatu hartzearen eta pentsio osoaren truk 180 euro ordaindu beharko dituzte.



Mugikorra erabiltzen ikasteko saioan. F. ETXEBERRIA

Urteko lehenbiziko irteera larunbatean Tolosara

Merkatuak bisitatu eta Urrietako Oianume sagardotegian bazkalduko dute

F. ETXEBERRIA

Ikastaroek, mendi-irteerek eta bidaiak ez dute hutsik eginen 2019an.

Urtarrilaren 8az geroztik, elkarteko kideak Donezteben mugikorrak erabiltzen ikasteko, Elizondon informatikan trebatzeko eta Mugairin memoria lantzeko saioak jasotzen

ari dira. Kiroldegietan, berriz, yoga-klaseak, luzaketak eta bertzelako jarduerak egiten hasiak dira.

Otsailean Bilbora

Ikastaroak jasotzen ez ezik, bidaiak antolatzen ere bada-biltza. Urtarrilaren 8tik 10era bitarte, erraterako, Madriler,

Toledora, Aranjuezera, Eskorialera eta Segoviara egitekoa duten bidairako izen-ematea zabaldu zuten eta berrogeita hamabi lagunek (aurreikusita zegoen gehiengo-kopuruak) eman zuten izena.

Dena dela, bidaiak horren aitzinetik, gehiago ere badituzte. Urteko lehenbizikoa urtarrilaren 26an, larunbatean, izanen dute. Merkatuak bisitatu eta Urrietako Oianume sagardotegian bazkalduko dute.

Otsailean, berriz, Bilbora joanen dira. Hasiera bateko asmoa –Bizkaiko meategia bisitatzekoa– bertan behera utzi dute eta bidaiak-agentziaren proposamenari jarraiki, Bilboko karraketan barna ibiltzeko, Begoña basilika bisitatzeko, euskal museoa ikusteko eta Alde Zaharra ezagutzeko aprobetxatuko dute.

Martxoan Euskal Kantuen Eguna

Martxoan, ohi bezala, Dantxarinear ospatuko duten Euskal Kantuen Eguna joanen dira. Euskal kanta zaharrez osaturiko liburuxkak lagun, kantuan ariko dira, bizpahiru orduz eta azkenik Guateke taldeak girotuko du besta.

Aurtengo mendi-irteerak lotuak dituzte

Mendi-irteerek 2018an parte-hartze handia izan zuten. Hilerro, 40-50 lagun inguruk hartu zuten parte. Arrakasta ikusirik, aurten honako hiru irteera hauek aurreikusi dituzte: batetik, uztailean Iza-bako kanpinetik abiatuta, Txamantxoiara joanen dira; bertetik, Larraitzera; eta azkenik, urrian, buletinean adierazi bezala, Artuoste bisitatu dute. Azken irteera horretan bi eguneko ateraldia egingen dute. Bortz ordu inguru libre izanen dituztenez, non ibili beraiek erabakiko dute.

Loterian lau euro elkarteko zenbakiarentzat

Eguberrietako loteriaren lehenbiziko sariaren hondarrek zenbakiak eta elkartekoarenak bat egin dutenez, txartel bakoitzeko lau euro jasoko dituzte. Ordaina, urtarrilaren 8az geroztik, Caixabankeko edozein bulegotan jaso daiteke.



F. ETXEBERRIA

Elkarteko eskulangileak bildu dira

Urtarrilaren 10ean Leitzako, Doneztebeko eta Elizondoko erakusketetan parte hartu zuten elkarteko eskulangileek hitzordua egin zuten. 2019an ere erakusketa horietara joanen direla eta beraien lanak plazaratuko zituztela adostu zuten. Era berean, Beran ere agerraldi bat egiteko ahaleginak egingen dituztela aipatu zuten.

Korrikaren harira bilera elkartean ortzegunean

AEK euskaltegiak Korrika Batzordea osatu nahi du. Horretarako lehen bilkura urtarrilaren 24an, 19:00etan dute

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 4an hitzordu polita izan zuten herrian. Izan ere, Mankomunitateko Prebentzio Batzordeak antolatuta, *Bertsotan Bertsukeritan* ikuskizunaz gozatu ahal izan zuten. Ane Labaka eta Beatriz Egizabalen eskutik, berdintasunaz gogoeta egiteko parada izan zuten. Ostatua bete-beteta zegoen eta saioa ikusleen gustukoa izan zen. Dena dela, hitzordu hori ez da urtarrilerako antolatu duten bakarra; ortzegunerako bilera deia egina dute.

Korrika Batzordea sortzea helburu

Aurten egingen den 21. Korrika, bertzeak bertze, eskualdeko Oieregi, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren eta Ezkurra herrietatik pasako denez, Malerreka Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak lantaldea osatzeko bilkuran parte hartzeko deia egin du. Lehenengo bilera Elgorriagako elkartean egingen dute urtarrilaren 24an, ortzegunean, 19:00etan. Biler irekia izanen da, hots, nahi duenak parte hartu ahal izanen du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Inauteri umoretsuak izan dituzte

Urtarrilaren 19an eta 20an ospatu dituzte herriko inauteriak. Larunbatean, gosalduta ondok, herrian barna ibili ziren, etxetxe salda beroa hartuz. Arratsaldean, herriko inauteriak izan zen mozorrotzeko gaia eta musika lagun, giro ederra izan zuten. Igandeko zozketa eta luntxarekin akitu zituzten inauteriak.

DONEZTEBEN neurria egindako etxebizitzak



PROMOCIONES
MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)

**2. faseko
AZKEN AUKERAK!**

Etorri eta erakutsiko dizuegu!



Ikusi pisu pilotoa!!



110.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera finantziarioa, Rural Kutxaren babes eta abalarekin



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



Txakur kakak biltzeko kanpaina abiatu du Udalak

Kanpainak herritarrak sentsibilizatzea du helburu eta horretarako albisteak kaleratu eta zabalduko dute

JM BARRIOLA

Udalak jaso dituen iritzien arabera, azken asteotan herriko gune publikoetan txakurren kaka kopurua nabarmen igo da: kale bazterrak eta umeen jolastokiak dira herritarrek gehien aipatu dituzten tokiak.

Horri horrela, «herritarrak horren inguruan sentsibilizatzeko helburuz», kanpaina bat abiatu du. Besteak beste, txakur-jabeak hartu beharko litzuzkeen ardurak zein diren jakinarazi eta garbitasunaren inguruan kontzientziaztea lortu nahi dute.

Horretarako, honakoak izanen dira Udalak hartuko dituen neurriak: batetik, web orrialdean albisteak kaleratu eta otsailera arte banner bat jarriko dute (kanpainako irudia eta mezu bat duena); eta bestetik, sare sozialen bidez, kanpainaren hedapena egingen dute, mezuak zabalduz. 'Txakur kaka gabe, askoz hobe!', 'Noiztik jasotzen dute txakurrek beren kaka?' eta 'Zure txakurra, zure ardura' tanke-rakoak erabiliko dituzte. Era berean, herriko karriketan afixak paratuko dituzte.

Agurne Oronozek Eguberrietako saskia irabazi du

Anikote elkarteak galdetegi bat betetzen zuten kideen artean bertako produktuez osatutako Gabonetako saski eder bat zozketatu zuen. Urtarrilaren 4an egin zuten zozketa eta Agurne Oronozi egokitu zitzaion.



ANIKOTE

Anikoten bazkide egiteko sarrera doan urtarrilean

Anikote elkartearen eskutik, 2019an kirola egin nahi dutenek eskaintza bereziak izanen dituzte herriko kiroldegian. Izan ere, urtarrilean bazkide egiteko matrikula-sarrera doan doan izanen dute. Bazkide-txartelak urte bateko iraurretasuna izanen du.

Herriko inauteriak ospatuko dituzte asteburuan

Aurreko aste bukaeran, banaketa-asteburuan, inauteri giroa sumatzen bazen ere, inauteriak ostiral eguerdiko kalejirarekin hasiko dira. Asteazken arratsaldeko magia-ikuskizuna bitarte hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izanen dute (*ikus. 725.zk.*).

Inauterietako desfilearen ibilbidea aldatu dute

JM BARRIOLA

Eguberrietako jaiak ahaztu gabe, mozorroak eta jantzi xebleak prestatzeko tenorea iritsi da. Azken urteotan bezala, Udalak gurdiak prestatu ahal izateko pabiloi bat alokatu du. Era berean, Herri Aretoko lanak tarteko, gurdien ibilbidea aldatuko dela jakinarazi dute.

Bestalde, inauterietan igandeko kalejiran parte hartzen dutenen eta bazkarira joaten direnen artean zozketa egingen dute. Ez da egingen duten zozketa bakarria izanen. Hamasei



Mozorroak prestatzen hasiak dira.

urtetik beherakoentzat beste zozketa bat egingen dute. Bazkari-txartelik ez duenak Torrean, Peritzan edo institutuan eskura dezake. Xehetasunak: aurreko TTIPI-TTAPAN.

Led argi sistemari esker gastua murriztuko dute

Azken urteotan Udalak herriko argiztapena aldatu du: lehenik alde zaharrekoak; gero erdigunekoak... Orain, herri osoa Led sistemarekin argizta dadin, falta zaizkienak aldatu nahi ditu. Horri esker bai gastua, baita kutsadura ere, murriztea lortu nahi du. Azken aldaketekin, zehazki, argindarfakturan %60-70 aurrezteak aurreikusi du. EKOLED enpresak egingen ditu lan horiek. Lanek 120.000 euroko aurrekontua dute eta %60a Gobernuko diru-laguntzen bidez ordainduko dute.

Oialde aretoari erabilera publikoa eman nahi diote

Udala Guraso Katolikoekin Elkartarekin hartu-emanen ari da. Izan ere, Oialde aretoaren jabetza une honetan elkartarena da. Pribatutasuna gainditu eta aretoari erabilera publikoa eta soziala ematea dute helburu.



Pilotalekuko kristalak zartatu dituzte

Udazkenean bukatu zituzten pilotalekuko moldaketa-lanak eta urtarrileko bigarren astebururako kristalak zartatu dituztela salatu du Udalak: «inor izorratu gabe ere ongi pasatzea badago».



UDALA

Udalak 2.497.337 euroko aurrekontua onartu du

Inbertsio handiena Herri Aretoko lanetara bideratuko du eta herri osoan LED argiak jarriko dituzte

JM BARRIOLA

Udalbatzarrean aurtengo aurrekontuak onartu dituzte. Guztira 2.497.337 euroko aurrekontua dute aurten, joan den urtean baino %7 gutxiago, alegia.

Inbertsio nagusia Herri Aretoran

Inbertsio handiena Herri Aretoran egingen dute. Dena dela, ez da aurreikusi duten lan bakarra: herri guztia LED sistemara jarri; Amazabaluzoan, Atekabeltz eta eskola arteko kalean, saneamendua egin eta lurzorua zaharberitu; Udaletxeke teilatua konpondu; Plazaola natur bideko hesia aldatu... nahi dute.

Haur-parkea eta mendi-lanak

Aurrekontuan jaso den kopurua, besteak beste, honela banatzea aurreikusi dute:

40.000 euro umeentzako parkea berritzeko eta beste 65.000 euro mendi-lanetarako. Azken urteotan mendian egin diren inbertsioei esker inguruan 44.000 zuhaitz landatu dituzte.

Zorraz gutxitzea helburu

Horrez gain, Ederbidea proiektuaren barne Nafarroako Gobernuak Plazaolako geltokiko biltegia berrituko du eta Udalak mendi-ibilbideak txukuntzeko 20.000 euro inbertituko ditu.

Era berean, partida sozialak, kulturalak eta berdintasunezkoak mantentzea aurreikusi dute. Horrela bada, Udalak duen zorra gutxitzen segiko du. Legealdiaren hasieran 130.000 eurokoa zen zorra bukaeran 90.000 izatea aurreikusi dute.

ALKE kultur taldeak Villabona familiari oroigarria eman dio

30 urtez artisau azoka antolatzen emandako laguntzaren gatik, ALKE kultur taldeak oroigarri bat eman dio Villabona talogile-familiari. Oroigarria bertako artisau batek mimoz egindako lan eder bat da.



Iñaki Perurena 'Gure Doinuak' saioan

ETBko 'Gure Doinuak' saioan agertu zen Iñaki Perurena urtarrilaren 16an, asteazkenean. Onintza Enbeitarekin batera, Leitzaldeko doinuen bila ibili zen. Saioa ikusi nahi duenak *EITB nahieran* gunean aurki dezake.



Trikitixaren bueltan giro ederra izaten dute inauterietan. ARTXIBOKOA

Mozorroak janzteko egunak ostirala eta larunbata

Ostiralean haurrentzako merienda izango dute eta larunbatean herriko gazteak baserriz baserri ibiliko dira

TTIPI-TTAPA

Otsaileko lehenengo egunetan inauteri haizeak astinduko du herria. Otsailaren 1ean, ostiralean, 15:00etan hurrek eskolan prestatu duten mozorroa soinean jantzi eta kalejira egingo dute. Gero, merienda izango dute. 17:00etan trikitilariak izango dira plazan eta 18:00etan Lagun Artekoak herriko eskean aterako dira. Azken horiek 21:30ean afaltzeko elkartuko dira.

Otsailaren 2an, larunbatean, Lagun Artekoek, baserrietako eskean atera aurretik, gosaria izango dute. Trikitilariak la-

gunduta baserrietako erronda osatuko dute eta 17:30ean karroza desfilearekin bat egingo dute. Haur, gazte eta heldu, denak mozorrotu eta pesta giroan ongi pasatzeko gonbidapena luzatu dute. Gero, musika izango da plazan eta 21:00etan herri-afaria. Sarre-rakoak, zopa, oilasko erreka patatekin, gazta eta iragasarra, kafea, pastak eta kopa izanen dituzte. Inauteriak borobiltzeko afalondoan mozorro lehiaketa, musika eta pesta izango dituzte eta nahi duenak gaua goizaldera arte luzatu ahal izango du.

Herri-batzarra egingo dute urtarrilaren 25ean

TTIPI-TTAPA

Udalak herri-batzarra egingo du heldu den ostiralean, urtarrilaren 25ean. 20:00etan zehaztu dute hitzordua eta udaletxean bilduko dira.

Adierazi dutenez, bi izanen dira bileran landuko dituzten gaiak. Alde batetik, Udalaren

egungo egoera ekonomikoari eta 2019ko aurrekontuei erreparatuko diete; eta beste aldetik, 2019ko udal hauteskundeetaz hitz egingen dute.

Udaletik herritar guztiei deialdia zabaldu nahi izan diete eta horien parte hartzea eskertuko dute.

Oraindik pediatria zerbitzurik gabe daude herritarrak

Osasun Sailak urtarrilaren 9an hasiko zirela esan bazien ere oraindik zain daude herritarrak

TTIPI-TTAPA

Herriko pediatria zerbitzuaren gabeziak salatuz hainbat elkarretaratze egin zituzten joan den urtean goizuetar eta aranoar gurasoek.

Izan ere, otsailera arte Leitzako osasun etxeko pediatriak ematen zuen zerbitzua herrian, Lekunberrin eta Goizuetan. Hortik aurrera, berriz, larrialdi kasuetan Leitzara joateko agindua jaso zuten. Aurreko pediatriak, borondatez, zerbitzua ematen jarraitu zuten; eta ondotik, berriz ere zerbitzurik gabe gelditu ziren.

Zerbitzua «oraindik» berrezarri gabe

Sinadurak bildu eta kontzentrazioak egiteaz gain, Osasun-bideko arduradunekin biltzeko eskaera aurkeztu zuten. Gobernuko Osasun Sailak

adierazi zenez, zerbitzua urtarrilaren 9an, asteazkenean, berrezartzekoa zuten eta ordutik aurrera, lehen bezala, herritarrek pediatria zerbitzua, astean behin, asteazkenean, herrian jasoko zuten.

Hitzorduak eskatzeko egutegirik ez

Hitzak airean daude eta goizuetarrek adierazi digutenez, herrian «oraindik» zerbitzurik gabe daude. Are gehiago, lerro hauek idazterakoan hurrengo astei begira, alde aurretiko hitzorduak eskatzeko egutegia ere «itxita» zuten.

Ordubeteko bidea

Hortaz, zerbitzua berrezarri artean, herritarrek, artatuak izatekotan, ordubeteko joan-etorria egiten segi beharko dute.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Etxezarreta eta Arrate pilotariak garaile

Hilaren 12an jokatu zituzten Umore Ona Pilota Txapelketako finalak. 22 urtez azpikoetan Etxezarreta eta Arratek irabazi zuten; infantiletan Deskarga eta Alegriak; alebinetan Labaka eta Artetxek; eta benjaminetan Iturain eta Bergarak. 1.840, 795, 2.590, 2.031, 171 zenbaki-sarituak agertzeke daude.



UTZITAKO ARGAZKIA

21 bikote Umore Onako mus txapelketan

Juan Apezteak eta Aitor Mendizabalek irabazi zuten Urtezahar egunean jokatu zuten mus txapelketa. Juan Miguel Apezteak eta Alvaro Legarreta izan ziren bigarren; eta Antonio Zubeldia eta Juan Eskudero hirugarren. 21 bikotek parte hartu zuten eta giro goxoa izan zuten.

'Goizuetan lan eta bizi' dinamikaren III. jardunaldia urtarrilaren 23an

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 23an, asteazkenean, egitekoa zuten herrian lan eta bizitzeko helburuz abiatu zen dinamikaren III. jardunaldia. Udaletxeko Batzar Aretoan zehaztua zuten hitzordua, 18:00etan eta «besteen esperientziak ezagutzeko ikasi nahi duen orori» luzatua zioten bertaratzeko gonbidapena.

Azkarate eta Saralegiren esperientziak

Hirugarren jardunaldi horretan Anizko Aitor Azkarateren (Jauregia Esnekiak enpresako

kidea) ibilbidea eta Kristina Saralegi (abeltzaina eta talogilea) leitzarraren esperientzia ezagutzekoak zituzten.

Aurreko jardunaldiak

Aurreko jardunaldietan ere hainbat nekazari eta abeltzainen bizipenak partekatzeko parada izan zuten. Izan ere, Juanjo Elizalde, Maite Sanchezek eta Gotzone Sestorainek beraien lanbidearen berri eman zuten. Era berean, Orokiatiko Ernaizu kooperatibaren nondik norakoak gertutik ezagutu ahal izan zituzten.

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

725 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Tarttalo Argitaletxea - 2 liburu

Gurutze Aizpuru Goñi | OROÑOZ-MUGAIRI

Lesakako Udal Kiroldegia - 2 sarrera

Rosa Mari Iribarren Etxegia | ARANTZA

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Marian Etxeberria Bikondo | DONEZTEBE

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Carmen Alonso Sancho | BERA

Onddo ta punto - Kamiseta bat

Iñaki Agirre Apezetxea | LEITZA

Arkupe - Lote bat

Ines Eizagirre Indakoetxea | SUNBILLA

Don Inorrez musika taldea - CD bat

Idoia Perurena Azkarraga | URDAZUBI

Don Inorrez musika taldea - CD bat

Unai Meoki Goñi | ELIZONDO

2 tiket

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

2 sarrera helduentzat

2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
www.turismozugarramurdi.com

BUATXABAL
www.buatxabal.com

Kamiseta bat

2 sarrera

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

MARTIKO
www.martiko.com

Lote bat

**LI
BU
RU
AK**



Manta belaunetan

Hamar! Aitonak oparia dakar!

Lagun berezi
bat

ibaizabal
www.ibaizabal.com

**LA
GUN
TZAI
LEAK**

www.urtxintxa.eus

www.buatxabal.eu

Alkaterik gabe segitzen dute Irurita eta Arizkunen

Errege Eguneko batzarrean, herrietako kontuak onartzeaz gain, Joxe Urrutia aukeratu zuten alkate Amaiurren

TTIPI-TTAPA

Ohikoa denez, Errege Eguneko batzarra egin zuten Baztango herri gehienetan. Urteko kontuak azaltzen dituzte batzar horretan eta alkate berriek bere kargua hartzen dute ofizialki. Horretaz gain, Amaiurren Joxe Urrutia aukeratu zuten alkate. Arizkunen eta Iruritan, aldiz, alkaterik gabe segitzen dute.

Ordenantzek agintzen dutenez, hilabete bateko epean batzarra deitu beharko du Baztango Batzar Nagusiko presidentek, Joseba Otondok, egoerari aterabidea emateko.

Herrietako alkateak

Gauzak honela, Baztango hamabortz herrietatik hamahirutan alkateak izendatu dituzte. Bortz berriak dira: Azpilkuetan Luis Azkarraga da al-

kate; Elbeten Xabier Urreaga; Zigan Idoia Arrieta; Amaiurren Joxe Urrutia; eta Erratzun, Joxe Itoiz. Elizondon Alazne Sasiñena Lertxundik segituko du alkate (bigarren agintaldia), Anizen Ainhoa Maritorea Azkaratek (bigarren agintaldia; Almandozen Luis Roldanek (16 urte karguan); Gartzainen Fernando Arraztoak (hirugarren agintaldia); Lekarozen Mattari Plazak (bigarren agintaldia); Oronozen Ruth Peñak (bigarren agintaldia); Arraiozen Joxelu Retegik (bigarren agintaldia); Berroetan, Carlos Garaikoetxeak (bigarren agintaldia).

Junteroa eta mendi komisionatuak

Egia da lan hauek betetzeko ez dela borroka handirik izaten eta aurkeztutako guztiek be-



Ainhoa Maritorea Anizko alkatea, herriko kontuak azaltzen. FERNANDO ANBUSTEGI

teko dituzte juntero eta mendi komisionatu lanak, batzarretan erabaki zuten bezala. Honela, Miguel Etxandi Irigoien izanen da Baztangoizako junteroa eta mendi komisionatua izateko ez da inor aurkeztu. Elizondoko junteroa Mikel Sobrino Urrutia izanen da eta mendi komisionatuak Luis Javier Larnagarai Mihura eta Iban Larratxea Irigoien. Erbereako juntero Peio Obregozo Istilart izanen da eta

mendi komisionatua izateko ez da inor aurkeztu. Basaburuako juntero Rafael Arretxea Maritorea izanen da eta mendi komisionatua, Pedro Maria Gamio Gaztelu.

Alkate, batzarkide eta mendi komisionatu berriek apirillean egingen den hurrengo Batzar Orokorrean hartuko dituzte karguak ofizialki, baina bozketa herri bakoitzean egingen den lehen batzarrean egingen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hondakinen egutegiaren lehen saria

Elizondoko Maria Josefa Zaldúa Azkarate izan da etxez etxe banatutako hondakinen egutegikin egingen den zozketan eskualdeko dendetan gastatzeko 300 euroko erosketatxartelarekin saritua izan den lehendabizikoa. Miren Meoki hondakin teknikariarekin eta alkatearekin ageri da.

5.544 euroko superabitarekin akitu dute urtea Elizondon

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Elizondoko Errege Eguneko batzarrean aipatu zuten bezala, iaz 132.703,21 euroko diru-sarrerak eta 127.158,70 euroko irteerak izan zituzten, 5.544,51 euroko superabita beraz. Urtea 31.623,06 euroekin hasi zuen eta egun 37.167,57 euro ditu Elizondoko herriakutxan. Gasturik handiena Santiago besten antolaketa da, 72.501,78 euro iaz. Iriarte pilotalekuaren teilatua egin zenez, iazkoak besta xumeagoak izan zirela onartu zuten. Diru-sarrerak ere izaten dira bestetan,

32.777,95 euro iaz. Zikiro-jatean 500 lagunetik 800era pasatu ziren eta hori nabaritzen diru-sarreretan. Herritarren kuotetatik 37.268,30 euroko sarrerak izan zituzten. Gaur egun herritarren %82 inguruk ordaintzen dute eta gaur egungo kargodunak hasi zirenean, %70ak bakarrik ordaintzen zuen. Udazkeneko feriek 25.048,70 euroko diru-sarrerak eragin zituzte eta 4.702,67 euroko gastuak. Hilerrian, 11.672,26 euroko diru-sarrerak eta 10.203,56 euroko gastuak izan zituzten iaz.

Almandozko harrobiko bideak eztabaida piztu du

Arrituritik materiala ateratzeko egin nahi den bidearen aldeko ebazpena eman du Ingurumen Departamentuak

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 2an egindako urteko lehen Batzar Nagusian, Almandozko Acha harrobiaren harira, Nafarroako Gobernu-ko Ingurumen Departamentuaren ebazpena mahai gainean jarri zuten eta eztabaida piztu zen.

Canteras Acha S.A. enpresak kudeatzen duen Arrituriko harrobia zabaltzeko eskaria egin zuen duela urte batzuk eta Batzar Nagusiak, txostenak aztertu eta Almandozen egindako galdeketa proposamen honen aitzinean baiezkoa

nagusituta, onartu egin zuen eskaera.

Tartean, dena den, harrobitik materiala ateratzeko bide berri baten beharra ere ikusi zen eta horrek ere, bere garaian, eztabaida piztu zuen. Herri-tarren artean ezadostasunak izan ziren eta prozesua uste baino gehiago luzatu da.

Urtarrilaren 2ko Batzar Nagusian, Ingurumen Departamentuaren baiezkotxostenaren berri eman zen. Juan Kruz Iriarte mendi zinegotziak Almandozen herri-tarren batzarrere bat egitea proposatu zuen,



Arrituriko harrobirako balizko bidea hizpide da Almandozen. JUAN MARI ONDIKOL

Ingurumen Departamentuak onartutako balizko bidearen inguruko informazioa helarazteko, herritar guztiak jakitun izan eta, horren arabera, erabakiak hartzeko.

Almandozko alkatea

Batzar Nagusiko kideak bilduko dituen bertze bilera informatibo bat egitea ere proposatu zen, hauek ere informazio

osotua jaso dezaten eta hone-la, denek egoeraren jakitun, erabakia har dezaten. Luis Roldan Almandozko alkateak deitoratu egin zuen urte anitz daramatela afera honekin eta Almandozko herri-tarrak nardatuak daudela adierazi zuen. Bide berria nondik joanen den jakin nahi dute eta herri-tarrei lekua bertatik bertara erakustea nahi du.




ELIZONDO ESKOLA PUBLIKOA

Denona, denontzat

AURREMATRIKULAZIO EPEA:

Otsailaren 4tik 8ra

ATE IREKIAK

Urtarrilaren 25ean, ostirala

CPEIP Elizondo HLHIP
Erabeta karrika, 11
31700 ELIZONDO
Tel: 948581808
cpelizon@educacion.navarra.es

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Gobierno de Navarra
Departamento de Educación



Baztango xurie botilatuta eta prest dagoeneko

Hurrengo erronka Baztanen bertan botilatzea eta beraien mahastietan bisitak antolatzea direla adierazi dute

TTIPI-TTAPA

Ana Iriarte eta Iñaki Bengoetxea arizkundarek, duela bortz urte, sortu zuten Baztango xurie ardoa. Ezezaguna zuten proiektu batean murgildu zirenez, hasierako urratsak zailak izan zitzaizkien. Ikasketa-prozesu gogorra bezain polita garatu behar izan zuten eta horretan dihardute oraindik. Pixkanaka ikasiz ari dira.

2013an eman zituzten lehen urratsak eta 2015etik 2018ra hiru hektareatan mahastiak landatzea lortu dute, Arizkungo lau partzeletan banatuak direnak: Meaka, Urtsua, Larrebazter eta Elorga. Klima atlantikora egokitutako barrietateak hautatu zituzten: izkiriota handia eta txikia, alegia. Lehen uzta 2016an jaso zuten eta Baztango xurie ardo botilek 2017an, Baztango udabe-



Bengoetxea eta Iriarte. JMI ONDIKOL

rriko ferian, ikusi zuten argia. Bai hasiera hartan, baita joan den urtean ere, guztia saldu zuten. Aurtengoa ere prest dute, baina jalkitzen utzi beharra dute.

Jakin badakite oraindik ikaste prozesuan daudela eta mahastien produkzioa ez dela izan daitekeen handiena, baina bidean doaz. Hurrengo erronka ardoa Baztanen botilatzea dute eta aurten horretarako prestatzea espero dute.



UTZITAKOA

Nobela Beltzaren hitzordua Arizkunen

Euskal Nobela Beltzaren harira, urtarrilaren 14an Dashiell Hammetten *Uzta gorria* lanaz solastatzeko bildu ziren Arizkunen. Merienda goxo baten bueltan irakurle andana bildu zen eta tarte atsegina bezain interesgarriaz gozatu ahal izan zuten.

'Komorebi' erakusketa ikusgai liburutegian

Maiela Zurutuzaren *Komorebi* erakusketa ikusgai izanen da otsailean liburutegi publikoan. Erakusketan agertzen diren haikuak Josu Jimenez Maiaren *Gerezi Garaiko Haikuak* liburutik ateratakoak dira. Nafar Ateneoko euskara eleduna da Jimenez.



Asghar Farhadi irandarraren eskutik tailerra Lekarozen

Asghar Farhadi, *Todos lo saben* eta *Una separación* filmen zuzendari eta bi Oscar sariren irabazlea den irandarrak, zine-tailerra eskainiko du Lekarozen. Estudios Melitón taldearen eskutik, maiatzaren 30etik ekainaren 8ra Baztanen izanen da.




- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Fisioterapeuta bat behar du AFINAK Elizondon

2018ko azaroaz geroztik errehabilitazio taldea geldirik dago, profesional baten beharra dutelako

TTIPI-TTAPA

AFINA Nafarroako Fibromialgia, Neke Kronikoaren Sindromea eta Sentikortasun Kimiko Anitzkoitzaren elkarrekin fisioterapeuta baten bila dabil, urteetan Elizondon eskaini izan duen errehabilitazio taldearekin aitzinera segitu ahal izateko. 2018ko azaroan profesional hori gabe gelditu ziren eta geroztik, zerbitzua eskaini ezinik gelditu dira.

10-15 emakumezkoren taldea

Nafarroan 20 urtetik goitiko ibilbidea egin duen erakundea da AFINA; 1998an sortu zen eta Elizondon ere urte saila daramatza. Urteotan osasun zentroko profesionalekin harremanetan egon da, hitzaldi-informatiboak ere eskaini ditu eta zonaldeko baliabide sozialen koordinazioaz ere arduratu da. Horrez gain, urte aunitzetan AFINAK errehabilitazio talde bat ere izan du eta elkartetik adierazi dutenez, hori da «gure programaren esku-hartze garrantzitsuetako bat». 10-15 emakume inguruk parte hartu izan dute erreha-



Errehabilitazioarekin segitu nahi da.

bilitazioan eta «emakume horiek haien osasunean hobekuntza eta emaitza positiboak ikusi dituzte».

Lan eskaintzan interesatuta daudenek AFINArekin jarri

**ORAIN ARTE
ASTEAN BITAN
ESKAINI IZAN DUTE
ZERBITZUA**

beharko dute harremanetan eta 948 13 53 33 telefonoa deituz jasoko dute lan-baldintzen inguruko informazioa. Orain arte astelehen eta asteazkenetan 17:00etatik 18:30era eman izan dute zerbitzua, Arizkunenea Kultur Etxean.

Hiru patologiak

Hiru gaixotasunak biltzen ditu bere baitan AFINAK. Fibromialgiaren ezaugarri nagusia min kronikoa da. Neke Kronikoaren Sindromea neke handia da, bai burukoa baita fisikoa ere, deskantsatu arren pasatzen ez dena. Sentikortasun Kimiko Anitzkoitza dutenek, berriz, ingurumeneko kimikoak ezin dituzte jasan. Gaixotasun bakoitzak «bere berezitasunak» dituen arren, «zuhaitz beraren hiru adar» direla diote AFINAtik, «hirurak sentsibilizazio zentralako sistemako gaixotasunak baitira».

Elkartearen helburu nagusia gaixotasun horiek dituztenen osasuna eta autonomia hobetzea da eta horretarako hiru lan-ildo nagusi jarraitzen ditu: alde batetik, ikasketa psikologikoko tailerrak egiten dituzte, banaka edo taldean, patologia horiek eragiten duten estresa eta antsietatea arintzeko; horrez gain, errahabilitazio fisiko espezifiko egiten dute gaixoen giharrak eta hezurak indartzeko; eta hirugarrenik, elikadura zaintzen dute, «kimikorik gabea, energetikoa eta ekologikoa den elikadura bultzatuz».

Pirritx, Porrotx eta Marimotots otsailaren 3an

Baztan Ikastolako Guraso Elkartek antolatuta, Euskal Herriko pailazo ezagunek Musua azken ikuskizuna eskainiko dute otsailaren 3an Elizondoko Baztan pilotalekuan, 11:00etan hasita. Txartelak Axularren eta Fantxiken salgai, baita egun berean ere.

Begoña Olabide eta Jabier Bergiaren kontzertua

Mujer de carne y verso: musulmanas, judías y cristianas izenburupean, kontzertua eskainiko dute Begoña Olabide eta Javier Bergiak igande honetan, urtarrilaren 27an. Musika emanaldia Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean izanen da, 19:00etan.

Solaslagunaren aurkezpen merienda ortzegunear

Izen-emate kanpainaren bigarren zatian sartua da Solaslaguna egitasmoa eta horren harira, aurkezpen merienda egiten ari dira han eta hemen. Baztanen kasuan, ortzegun honetan, urtarrilak 24, egitekoa dute, 19:00etan, Arizkunenea Kultur Etxean.

Hiri-Jardueretako plan bereziaren harira bilera Elbeten

Baztango Udalak web orrian jakinarazi duenez, Elbeteko Bidearte eraikinen baldintza urbanistikoak aldatzeko Hiri-Jardueretako plan bereziaren barne atal modura, bilera informatiboa egingen dute ortzegun honetan, hilak 24, Bidearte etxean, 19:30ean.

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
empresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Abeltzainen eskariarekin bat egin du Arartekoak

Bere funtzio soziala eta animalien osasuna haintzat hartzea eskatu du, Foru Dekretuaren inguruko kexari erantzunez

TTIPI-TTAPA

2018ko urriaren 23an zenbait abeltzain eta Nafarroako udalerritako alkatek Nafarroako Arartekoari kexa bat aurkeztu zioten abere ustiategi eta instalazioetako baldintza higieniko sanitario, animalien ongizate eta antolamendu zooteknikoa arautzen dituen Foru Dekretuan abeltzaintza tradizional estentsibo eta/edo ekologikoak duen trataera diskriminatzaileagatik.

Gaiari buruzko informazioa eskatuz, kexa Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, In-

gurumen eta Toki Administrazioioko Departamentura helarazi ondotik, honek Arartekoari erantzun zion 2018ko azaroaren 20an, sinatzaileek aurkeztutako puntu bakoitzari erantzuten dion txostena aurkeztuz.

Bi aldeetako argudioak aztertu ondotik, Arartekoak onartu du «gaur egun nekazaritzak dimentsio sozial garrantzitsua hartu duela landa eremuen hustutzea eragotziz edo atzeratuz, landa eremuan biztanleria mantentzeak dakartzan ondorio positibo guz-



Atez, Baztan eta Leitzako alkateek aurkeztu zioten kexa Arartekoari. ARTXIBOKOA

tiekin, bereziki herrietako kultura tradizionalak eta ingurumen oreka mantenduz». Aldi berean, baieztatu du «abeltzaintzan, animalien osasuna eta ingurumenaren babesa faktore determinatzaileak direla, bai botere publikoentzat bai arlo horretan dabilzan sektore pribatuentzat ere». Horregatik, bi interesak haintzat hartzea beharrezko-

tzat jotzen du: abeltzaintzaren funtzio soziala eta animalien osasuna eta ingurumenaren babesa.

Beraz, kezka aintzat harturik, Arartekoak egokia iritzi dio abeltzaintza ustiategi tradizional, estentsibo eta ekologikoentzat (txikiak eta ertainak) erregimen espezifiko eta berezko bat egoteari eta hori iradoki dio Departamentuari.

BAZTAN TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta probexitu aukerak!

<p>ALMACO BAZTAN iGAMTIA</p> <p>%5 %10 DESKONTUA EDO OPARIA Galdetu dendan</p> <p>T. 948 58 01 04 ELIZONDO www.almacobaztan.com</p>	<p>ARGIBEL PTIKA</p> <p>ESKAINTZA Betaurreko graduatu pare bat erosterakoan, graduazio bereko bertze pare bat doan</p> <p>Santiago, 86 ELIZONDO T. 948 58 13 91</p>	<p>Beatriz</p> <p>%5 %5 DESKONTUA kosmetika eta osagarrietan DESKONTUA laserrean eta gorputz-aurpegi tratamenduetan</p> <p>Santiago, 53 ELIZONDO T. 948 58 02 83</p>	<p>BIOK BAT TAILERRAK</p> <p>%10 DESKONTUA Bateriaetan, olio aldaketa eta frenoetan</p> <p>Santiago, 85 ELIZONDO T. 948 58 08 98</p>	
<p>FOTOMENA</p> <p>%10 DESKONTUA kopia digitaletan</p> <p>Santiago, 44 ELIZONDO T. 948 58 01 55</p>	<p>EZ</p> <p>%10 DESKONTUA produktuetan</p> <p>Santiago, 15 ELIZONDO T. 948 58 04 91</p>	<p>Giltxaurdi Udal Kiroi Instalazioa</p> <p>%5 DESKONTUA neguko denboraldian zehar 10 eguneko abonoan</p> <p>Giltxaurdi, 38 ELIZONDO T. 948 45 23 01</p>	<p>Gureaut TAILERRAK</p> <p>%10 DESKONTUA baterietan</p> <p>Datuegibela, 10 ELIZONDO T. 948 58 02 25</p>	<p>IPINGI</p> <p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Santiago, 130 ELIZONDO T. 948 58 09 39</p>
<p>nafarpres</p> <p>%10 DESKONTUA liburu eta ikas materialetan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik</p> <p>Jaime Urrutia, 43 ELIZONDO T. 948 58 09 02</p>	<p>POSADA ELBETE</p> <p>%10 DESKONTUA kartan, 30€tik gora txartela duenari</p> <p>Karrikaundi, z/g ELBETE T. 948 58 15 19</p>	<p>SANSIÑENA</p> <p>%5 DESKONTUA olio aldaketetan</p> <p>Santiago, 37 ELIZONDO T. 948 58 04 06</p>	<p>ttipi-ttapa</p> <p>%10 DESKONTUA eskeletan</p> <p>Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58</p>	<p>Zentru berria Homeopatia, Kiromasajea, Polaritatea, Dietak ...</p> <p>%10 DESKONTUA kontsulta-terapiari</p> <p>Santiago, 58 ELIZONDO</p>

URDAZUBI



Abenduko txapelketako irabazleak. UTZITAKOA

II. Mus Txapelketa Gauñara elkartearen urtarrilaren 26an

Nikolaurenean eta Karreteron eman daiteke izena eta bikote bakoitzak hamar euro ordaindu beharko ditu

MARIFA ETA KORO

Urdazubiko Gauñara elkarteak antolatuta, mus txapelketa jokatu zuten abendu hondarrean herrian. Guztira hamalau bikotek parte hartu zuten eta herritar anitz (gazte zein guraso) ikustera joan ziren. Irabazleak Ixiar eta Aitor Rementegi anai-arrebak izan ziren; bigarrenak, berriz, Martin eta Ana Mixelena aitalabak. Irabazleak bina botila ardo eta azpitxapeladunek gasna bat eraman zituzten.

Txapelketa horretako parte-hartzea ikusi ondotik, herritarrek urtarrilaren 26rako,

heldu den larunbaterako, bertze txapelketa bat antolatu dute. 20:30ean zehaztu dute hitzordua eta elkartearen egoitzan bilduko dira.

Izen-ematea

Parte hartu nahi dutenek aitzinetik Nikolaurenean eta Karreteron eman dezakete izena eta bikote bakoitzak hamar euro ordaindu beharko ditu. Aitzineko aldia bezala, txapelketa jokatu bitartean herriko gazteak pintxoak egin eta saltzen ariko dira eta zintzurak bustitzeko aukerarik ez da faltako.

ZUGARRAMURDI

Altsasuko gazteen gurasoak herrian izanen dira otsailaren 2an

MARIFA ETA KORO

Altsasuko gazteen gurasoak otsailaren 2an museoko auditoretza-gelan bilduko dira orain arteko gertaerak eta egungo egoera azaltzeko. Oraindik tenorea ez da finkatua, baina arratsaldean izanen dela aurreikusi dute. Ondotik,

denendako meriendatxoa eskainiko dute. Adierazi dutenez, duela gutti herritarrek bizitako «injustizia» gogoan dute, baita horren harira jasotako «laguntza» ere. Hortaz, Altsasukoeekin berdin jokatu nahi dute: «atxikimendua eta laguntza eskainiz».



Marifa eta Ainara joan den urtean Lesbosen. UTZITAKO ARGAZKIA

Marifa eta Joxe Grezian errefuxiatuak laguntzen

MARIFA ETA KORO

Marifa eta Joxe herritarrek Greziako Lesbos irlan dauden errefuxiatu-kanpamentuetan laguntza eskaintzera joan dira. Ez da lehendabiziko aldia; iaz ere Marifa eta Ainara bertan izan ziren. Urtarrilaren 7an abiatu ziren eta hiru astez ariko dira errefuxiatuekin lanean,

Refugee 4 Refugees elkartearekin. Joan aitzinetik dirubilketa bat ere egin zuten. Herriko hainbat tokitan eltzetsuak paratu zituzten. Horri esker, guztira 420 euro bildu ahal izan zituzten. Diru hori errefuxiatuak laguntzeko helburua duen elkarteari eman zieten.

Herritarrek lezean mantentze-lanak egin dituzte

Lezean lanak egin dituzte: eskailera azpiak azkartu; lezeko bizkar bati harrizko errefortzua eman; eta eskailera garbitu dituzte. Zerradura konpontzen eta zuhaitzak kimatzen ere aritu dira.



BEROPEL
egurrezko pelletak
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

EN plus A1
ES 025



Talde nagusia eta erreserba elgarrekin eta jokoan. CLAUDE LECONTE

SAILKAPENA

Taldea	Jokatuak	Irabazi	Ados	Galdutako Puntuak	Galdutako Puntuak
1. Rion des Landes	13	12	0	1	52
2. Nabarrenkoxe	13	9	0	4	40
3. Soustons	13	8	0	5	39
4. AS Baiona	13	7	1	5	34
5. Mugerre	13	7	1	5	31
6. Bizanos	13	7	1	5	31
7. Bardoze	13	6	1	6	30
8. Kanbo	13	6	0	7	28
9. Senpere	13	5	0	8	25
10. Larresoro	13	5	0	8	25
11. Mugron	13	3	0	10	18
12. Donapaleu	13	0	2	11	6

Jausteko arriskutik ez da salbatua errugbi taldea

Sailkapeneko bigarren den Nabarrenkoxeren aurka galdu zuten urtarrilaren 13an eta hamabietatik 9. Postuan dira

PIERRE BASTRES

Euripean eta hotz handiarekin aritu ziren Senpere eta Nabarrenkoxe, alta, denbora txarra izanagatik partida ederra ikusi zuten ikusleek.

Nazionaleko 3. mailako zoin-gehiagoka bat zen, 14. multzoan. Partidaren aitzinetik gogorra izanen zela ongi bazekiten bertakoek, eta hola izan zen, alabaina. Izan ere, Biarnoko taldea multzoko

bigarrena zen. Haatik, Claude Leconte lehendakari kidearen ustez, «Senpere izan da hobekien jolastu duena orohar, baina lehen zatian huts frango egin ondotik, bi entsegu erdietsi dituzte Biarnokoek. Ondikoz, guk ez dugu entsegurik sartu, lau zigor kolpe baizik 14-12 galduz. Heldu den astean Larresororat joanen gara, zerbait egin beharko dugu 3. mailari atxiki nahi badiogu».

Senpertarren joko polita azpimaraten du Audeteneko Jean-Bapiste Borthaire *Babak* ere: «Gazte frango baditugu, eta jolastea maite dute. Zelai idorra eta euririk ez nahiago dugu lohia eta basa baino. Igandean izigarri bustia zen, baloia lerrakorra. Gainerat gu hilabete oso bat egon gara jolastu gabe, Nabarrenkoxe joan den astean aritzen zelarik, Kanbon irabaziz. Behar bada, horregatik haiek baino nekatuagoak ginen. Baina *bonus* bat erdietsi dugu hala ere, garrantzitsua da zenta bi talde jautsiko direlaketz, eta ez gara oraino salbatuak!». Hori erranta, bi buruzagiek ahots batez diote: «behazailak atseginez ikusten dituzte gure partidak, joko erakargarria

erakusten omen dutelako senpertarrek».

Kirolaz kanpo, «giro arras ona dugu buruzagi, trebatzaile eta jokalarien artean, bi ekipeetan. Gehienak hementxo dira, eta kanpokoak senpertarrak bilakatuak! Ateraldi batzuek eginen ditugu, otsailean sagardotegi baterat joanen gara, hala nola. Errugbi eskolan, bada bi urte Sararekin dugula adiskidantza, eta ezin hobeki iragaiten da, egiakzki erdiespen ederra». Geroari begira, Claudek utziko du urte hondarrean, eta *Babak* aitortu du «bertze urte bat eginen dut bai, baina segidaren begira gaude, hamaika urte lehendakari egonik baitezpadakoa zait abar gazte zombaiten agertzea!».

BERA (administraritzak)
31780 Bera

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Irun

DANTXARINEA
31712 Urdax

LUZAIDE
31660 Luzaide

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25ª eta urtarrilaren 1ª izan ezik

Landibar

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3 km URDAZUBI

ORBELA
SENDERISMOA ATERPETXEA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com



Emaztekietan Oihana Azkorbebeitiak irabazi zuen iaz lasterketa PIERRE EZCURRA

Sara Korrika Trail lasterketan izena emateko epea irekia

Martxoaren 31n egingen da lasterketaren 14. edizioa eta bezperan taldekako lasterketa antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Urte berrian sartu orduko, lanean hasia da Sara Korrika taldea. Gainera, aurtengoa, urte berezia izanen da, taldearen 20. urteurrenaren kariatara, berrikuntzak iragarri baitituzte. Urteko hitzordu nagusia martxoko hondarrek asteburuan egingen da. Martxoaren 31n, igandea, aurten 14. edizioa beteko duen Sara Korrika Trail lasterketa ezaguna egingen da. 09:00etan hasita, lasterkariak 22 kilometro eta 1.600 metroko maldada positiboa duen ibilbidea egin beharko dute.

Baina 20 urteak gogoan, bezperan, martxoak 30, ere bertze lasterketa bat antolatu dute. Sktrio deitu dutena, taldeko edo hiruak egin beharko dena. Errelebo-lasterketa izanen da eta hirutik batek guttienez emakumezkoa izan

beharko du. Lehia 12:00etan hasiko da.

Izen-ematea

Urtarrilaren 5eaz geroztik, zabalik dago bi lasterketetan izena emateko epea. Martxoaren 30eko lasterketan parte hartzeko, taldeka 47 euro ordaindu beharko dira. Gehienez ehun taldek parte hartzen ahalko dute. Igandeko lasterketa parte hartzeko, gehienez 650 lagunek parte hartzen ahalko dute eta pertsonako 25 euro ordaindu beharko dira.

Bertze hitzorduak

Urteko gainerako hitzorduak noiz izanen diren ere zehaztu du lasterketa elkarteak. Abuztuaren 25ean kontrabandisten lasterketa egingen da, 8,4 kilometroko lasterketa eta irailaren 7an Sara korrika, hamar kilometroko luzera duena.

Udan langileak hartzeko deialdia egin du Herriko Etxeak

TTIPI-TTAPA

Udako hilabeteetan hainbat lan egiteko gazteak kontratazen ditu Herriko Etxeak eta aurten ere helburu horrekin deialdia egin du. Igerilekuan aritzeko, zerbitzu teknikoa eskaintzeko eta aisialdi zerbitzuan aritzeko izanen dira eta ikasleentzat gordetako lanpostuak izanen dira.

Ikaslea izatez gain, herrian bizitzea bertze baldintzetako bat izanen da, baita 17 urte eginak izatea ere. Euskalduna izatea baloratuko dute.

Interesatuak lana eskatzeko fitxa beteta eta gainerako dokumentuak otsailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko dituzte Herriko Etxean.

Hilerrien prezioak

Herriko Kontseiluak hilerrien prezioak zein izanen diren ere

jakinarazi du. Horren arabera, lurra 200 eurotan eskainiko du eta 50 urteren buruan berriz berritu beharko da hitzarmena. Hilobien kasuan, sei hobi dituenak 2.035,02 euro ordaindu beharko dira (zergak barne) eta bederatzi hobikoak, berriz, 2.277,40 euro (zerga barne).

Lokalak errentan

Olhain eraikineko bi lokalak ere errentan eman ditu Herriko Kontseiluak. Horietako bat Anne Marie Rastelek hartu du eta bertzea Duinat senar-emaiteek. Bi kasuetan bederatzi urtetarako hitzarmena sinatu dute eta bakoitzak hilabetero 550 euroko kuota ordaindu beharko du, zergak barne. Rastelek arte galeriarako erabiliko du eta Duinatek joskitza tailerra.



GURE IRRATIA

Giro ederra bertso desafioan

Gure Irratiak eta Urtxola jatetxeak antolatu bertso-desafioaren kariatara, saio ederraz gozatu zuten hilaren 11n jatetxean bildu ziren 60 bat lagunek. Mattin Salto Xilabako talde txapeldunaren eta Aldatzea Komeni Nafarroako Bardotako talde irabazlearen arteko lehian, nafarrak nagusitu ziren.

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttppi.eus





Partida guztiak Iruritako Aranabia pilotalekuan jokatuko dituzte. JUAN MARI ONDIKOL

XIX. paxaka txapelketan bortz hirukote hasi dira

Horietatik lau Baztango pilotariek osatzen dituzte eta bertzea Oizkoa da; Iruritako Aranabian jokatuko dituzte partida guztiak

TTIPI-TTAPA

Ilbeltzaren 11-12ko asteburuan abiatu zen Laxoa Elkarteak antolatutako Baztan-Errekako paxaka txapelketaren hemezortzigarren edizioa. Bortz hi-

rukotek eman dute izena eta partida guztiak Iruritako Aranabia pilotalekuan jokatuko dituzte. Otsailaren 7, 8 eta 9ko asteburura bitarte bortz jardunaldi jokatuko dituzte, de-

nak denen kontra eta ondoko bi asteburuetan jokatuko dituzte finalerdiak, lau lehenbiziko sailkatuek. Zuzenbidean, finala martxoko lehen asteburuetan jokatuko dute.

Taldeak

Hau da hirukoteen osaketa: Gorka Urtasun, Juan Mari Maia eta Joxe Itoiz; Mikel Mindegia, Egoitz Prim eta Miguel Angel Iñarrea; Manu Irigoien, Xabier Mihura eta Joxe Mari Salaburu; Xabier Barberena, Iñaki Etxandi eta Kaiet Itoit eta Oizko Ioritz Zelaieta, Aimas Saldias eta Ugutz Zelaieta.

Malerrekako XVII. eskuz binakako txapelketa abiarazi du Errekak

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Zazpi kategoriatan banatutako 176 bikote hasi dira Doneztebeko Erreka elkarteak hamazazpigarren urtez antolatutako Malerrekako eskuz binakako txapelketan, otsailaren 23an Donezteben jokatuko diren finalerako txartelaren bila.

Kategoria ttiketako gehienak urtarrilaren 13an hasi ziren kanporaketak jokatzen eta senior mailakoak, elite nahiz bigarren mailakoak, hilaren 16an. Jubenilak Lesakan, kadeteak Sunbillan, infantilak Donezteben, alebinak Eratsunen eta benjaminak Iruritan ariko dira igandetan. Elite eta bigarren mailako seniorrak, berriz, asteazketan ariko dira, Doneztebeko Ezkurra eta Sunbillako pilotalekuetan, hurrenez hurren.

Aurten, elite mailan zortzi bikote bakarrik ari dira eta beraz, lehen kanporaketaren ondotik, hilaren 23an jokatze-koak zituzten finalaurrekoak.



UTZITAKO ARGAZKIA

680 kiloko txapela jantzi du Beti Gaztek

Urtarrilaren 12an abiatu zen Gernikan Euskadiko goma gaineko sokatira txapelketa eta Lesakako Beti Gazte nagusitu zen gizonezkoen pisu astunenean, finalean Ibarra (Gipuzkoa) menperatuta. Orain, bertze kategoriatan ariko dira gizonezkoak, emakumezkoak eta talde mistoa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eguberrietako buruz buruko final handia

Eguberrietako buruz buruko erremonte txapelketak bukaera bikaina izan zuen urtarrilaren 12an Bartzelonako Vall D'Hebron pilotalekuan. Final ikusgarria eskaini zuten Iruritako Gorka Urtasunek eta Urrizak. Edozeinek irabaz zezakeen, baina azkenean Urriza nagusitu zen, 30-28.



Iñaki Ubiriak irabazi du Nafarroako lur gaineko rally txapelketa. UTZITAKO ARGAZKIA



Banesa San Juan hirugarren izan da lur gaineko txapelketan. UTZITAKO ARGAZKIA

Eskualdeko gidariak bikain ibili ziren iaz rally txapelketetan

Joseba Beola beratarrak asfalto gaineko Nafarroako txapelketa irabazi zuen eta Iñaki Ubiria lesakarrak lur gainekoa

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Automobilismo Federazioak urteko sari banaketa egin zuen urtarrilaren 19an Murtxanteko Kultur Etxean. Aipatzekoa da Nafarroako rally txapelketan txapeldun suertatu direla Bortziritako gidariak: asfalto gainean Joseba Beola beratarra, Joxe-

lu Iratzoki igantziarra kopilotu zuela eta lur gainean Iñaki Ubiria. Junior mailan ere, Berako Joseba Pikabea izan da onena asfalto gainean.

Beola jaun eta jabe

Asfalto gainean, 2018ko zortzi karreretatik zazpi (Sonserrano, Kontrabandistak, Fitero, Le-

saka, Irurtzun, Malerreka eta Callaghan) irabazi zituzten Beolak eta Iratzokik; beraz, jaun eta jabe izan ziren. Garesen bakarrik ez zuten irabazi, matxuragatik proba utzi behar izan baitzuten. Joseba Pikabea beratarra izan zen junior mailako gidaririk onena.

Lur gainean, berriz, Iñaki Ubiria gidari lesakarra izan zen irabazlea, Gorka Biain kopilotu zuela. Sei proba puntuagarrietako (Torres, Autol, Nafarroako Zirkuitua, Allo, Borja eta Korella) bakarra irabazi zuen, Allokua, hain zuzen, baina bere erregulartasunak saria izan zuen eta 167 puntu pilatu zituen. Iñaki Texeira bigarren izan zen 160 puntuarekin eta parte hartu zuen

emakume bakarra, Beran jaiotua eta Lesakan bizi den Banesa San Juan, hirugarren izan zen, 94 punturekin. Lehen aldian zuten San Juanek gidari lanean eta emaitza ederrak lortu zituen bere estreinaldian, Miguel Iraizoz kopilotu zuela.

Mendiko txapelketako sariak ere banatu zituzten Murtxanteko. Turismo klasean Lesakako Artiga Motorsport eskuderiako Saxoarekin txapeldun izan zen Iruñeko Daniel del Villar eta Ilargi Sporteko Asier Almandoz irundarra bigarren. Mendian, formula libreaan, hirugarren izan zen Doneztebeko Xabier Zubeldia.

Alde txarrean, iaz, Ibañeta, Petilla eta Urbasa Igoerak bertan behera gelditu ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Doneztebeko neskek txapeldun Iruñean

San Miguel ikastetxeko neskek irabazi dute Osasunak antolatutako eskolen arteko futbol txapelketa. Finalean 4-0 irabazi zioten Iruñeko San Fermin Ikastolari (Uxue Santesteban eta Zaira Bendoiro zubietarrek bina gol egin zituzten). Nerea Agestak jokalaririk onenaren saria jaso zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Agirre leitzarria binakako txapelketan

110 pilotarik eman dute izena urtarrilaren 27an Galdakoan (Bizkaia) hasiko den Binakako Txapelketan. Horietatik 98 ariko dira promozio mailan, eta hamabi lehenbiziko mailan. Lehen mailan, hain zuzen, Iera Agirre leitzarria parte hartuko du.

AGENDA

URTARRILAK 24 - OTSAILAK 7

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

BILERAK

ELGORRIAGA

Korrikarako lantaldea osatzeko bilkura

Elkartean, ilbeltzaren 24an, 19:00etan.

ELBETE

Hiri-jardueretako plan bereziaz mintzatzeko

Bideartea etxean, ilbeltzaren 24an, 19:30etan.

ARESO

Egungo egoera ekonomikoaz eta aurrekontuez bilera

Udaletxean, urtarrilaren 25ean, 20:00etan.

IGANTZI

Barne-araudia berritzea hizpide

Biltoki elkartean, ilbeltzaren 26an.

ELIZONDO

2019ko aurrekontuak

Udaletxean, ilbeltzaren 29an, 17:30ean.

AURKEZPENAK

ELIZONDO

Solaslaguna egitasmoaren aurkezpen-merienda

Arizkunenean, ilbeltzaren 24an, 19:00etan.

ZUGARRAMURDI

Altsasuko gazteen egoera hizpide

Museoan, otsailaren 2an, arratsaldean.

GOIZUETA

'Goizuetan lan eta bizi' III. jardunaldia

Aitor Azkarate eta Kristina Saralegiren esperientziak hizpide. Udaletxeko batzar aretoan, urtarrilaren 23an, 18:00etan.



VALLE DE BAZTAN

ELIZONDO Maulitxera

Baztango Mendigoizaleak taldearen eskutik. Urtarrilaren 27an, 07:30ean, plazatik abiatuta.

IKASTAROAK

AURTITZ

Adimen emozionala langai

Abarun aterpetxean, otsailaren 22tik 24ra.

GOIZUETA

Helduentzako informatika ikastaroa

Eskolako ordenagailu gelan, urtarrilaren 29an hasita, asteartetan, 17:00etatik 19:00etara.

DONEZTEBE

Musikoterapia tailerra

Haizea Loiraren eskutik. Herrigunean, otsailaren 1ean hasita ortziraleroko. Izen-ematea: 60 euro herritarrek eta 70 gainerakoek.

BERTSOA

ITUREN

Bertso-bazkaria

A. Laburu eta Maialen Lujanbio.

Otsailaren 2an, 14:00 aldera, udaletxeko ganbaran.

URDAZUBI

Nafarroako Bertso Txapelketako kanporaketa

Kultur etxean, otsailaren 10ean.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Begoña Olabide eta Javier Bergia

Arizkunenean, ilbeltzaren 27an, 19:00etan.

BERA

Haize-instrumentu entzunaldia

Musika eskolan, urtarrilaren 22an, 18:00etan.

'Leiho bat zabalik'

Kultur etxean, urtarrilaren 26an, 19:30ean.

Txistu entzunaldia

Musika eskolan, urtarrilaren 28an, 18:00etan.

Perkusio entzunaldia

Musika eskolan, urtarrilaren 29an, 18:00etan.

ERATSUN

Malerreka Kantuz

Plazatik abiatuta, otsailaren 2an, 12:00etan.

IRTEERAK

ELIZONDO

Maulitxera

Urtarrilaren 27an, plazatik abiatuta, 07:30ean.

Arpekosaindura

Otsailaren 3an, plazatik abiatuta, 07:30ean.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Komorebi

Baztango Liburutegi Publikoan, otsailean.

IKUSKIZUNAK

LESAKA

'Herri txiki infernu handi' saioaren azken grabaketa

Harriondoan, urtarrilaren 24an, 20:00etan.

BERA

'Balio magikoak' ikuskizuna

Oliver magoaren eskutik. Kultur etxean, urtarrilaren 27an, 17:00etan.

DONEZTEBE

'Orm en el Reino de las Nieves' eta 'Jurasic World' filmak

Zineman, urtarrilaren 27an, 16:30ean hasita.

ELIZONDO

'Musua' ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimotots.



UTZITAKO ARGAZKIA

BERA Musika eskolako ikasleen kontzertuak

Haize-instrumentu kontzertua eta txistu zein perkusio entzunaldia.
Urtarrilaren 22an, 28an eta 29an, hurrenez hurren, 18:00etan.

Baztan pilotalekuan, otsailaren
3an, 11:00etan.

LEHIAKETAK

BAZTAN

Argazki lehiaketa

Baztan Rugby Taldearen eskutik.
Martxoaren 15a arte, info@baztanrt.com helbidera.

DONEZTEBE

Indarkeria matxistaren aurkako I. ipuin lehiaketa

Otsailaren 8a arte,
bibliodoneztebe@yahoo.es helbidera.

ESKUALDEA

Inauterietako argazki lehiaketa

ERRAN.EUS atariak antolatua.
Martxoaren 22ra arte, erran.eus atariaren bidez.

URDAZUBI

Mus txapelketa

Gauñara elkartearen, urtarrilaren
26an, 20:30ean.

INAUTERIAK

SUNBILLA Inauteriak

Urtarrilaren 25etik 27ra.

ZUBIETA, AURTITZ, ITUREN Inauteriak

Urtarrilaren 28an eta 29an.

LEITZA Inauteriak

Urtarrilaren 25tik 30era.

ARESO Inauteriak

Otsailaren 1ean eta 2an.

URROZ Inauteriak

Otsailaren 1ean eta 2an.

ARANTZA Inauteriak

Otsailaren 14tik 16ra.

IGANTZI Inauteriak

Otsailaren 22an eta 23an.

Nire aukera

«Etxez etxe jatekoa, edatekoa eta diru-laguntza ematen digute»

IMANOL BARAIBAR ARRATIBEL ARESOKO GAZTEA

«Areson bizi den gazte parrandazale bat» da Imanol Baraibar. «Gogoz eta konpainia onarekin» egiten diren «pesta guztiak» ditu gustuko. Laster herrian bertan osagai biak bateratuta bizi dituzten inauterietan gozatzeko aukera izanen du. Lagun artean eta ahal bezain beste aprobetxatuz bizi du inauteri asteburua: «lanetik atera orduko prestatu eta pestara joaten naiz». Egun horietan,



bi hitzetan, «jan eta edan» egiten duela esanen luke: «ostiralean herriko eskea, musika eta gazteen afaria izaten dugu. Larunbatean, berriz, gosaldia eta baserrietara joaten gara, eskean. Arratsaldean, karrozekin herrian barrena ibiltzen gara. Herri-afaria izaten dugu elkartearen eta parranda pixka bat egiteko aukerarik ez

dugu galtzen». Hamasei urte zituenetik ibiltzen da etxez etxeko eskean eta gustuko du giroa: «herritarrek ateak ireki eta jaten eta edaten ematen digute, baita pestak antolatzen jarraitzeko diru-laguntza ere». Etxez etxeko buelta eta larunbateko herri-afaria dira inauterietako momentu politenak berarentzat. Azken horren berezitasuna ageriko egin du: «zahar eta gazte denak elkartzen gara bertan». Herri txikia izateak «elkarrekin ibiltzeko» eskaintzen dien aukera eskertzekoa da bere ustez, eta ez du gehiago behar: «daukagunarekin pozik ibiltzen gara». Parrandazale eta kirolari izatea bateragarriak direlako adierazle dira bere afizioak. Izan ere, «parranda egiteaz gainera, mendian eta bizikletan ibiltzea» du gustuko. Dena dela, aitortu digunez, pesta ondoren ez dio gain hartzen, eta hori ere bada abantaila: «ez dut biharamun handirik izaten». Horri esker, «ongi antolatu eta denerako denbora» izaten du. Batean pestan eta bestean bizikleta gainean edo korrika «mendian» ikusiko aresoarra; pesta ez ezik, «kirola egunerokotasunetik irteteko modua» baita berarentzat. Mendian korrika egiten hasi zenetik «urtebete inguru» bakarrik pasa den arren, txokoak ongi ezagutzen ditu eta horien artean «Ulizarko kaxkoa» du gustuko. Hara joateko eta zaletasunei eusteko «osasuna eta denbora izatea» nahikoa omen du pozik bizitzeko.

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

URDAZUBI. Herri sarreran, toki onean, pisua salgai. ☎ 649 21 91 34 / 679 32 81 62.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Eltzeta karrikan garajea errentan emateko. ☎ 628 03 25 58.

BERA. Kanttonberri karrikan, harategia errentan emateko. ☎ 687 73 69 86 / 948 63 00 18.

EROSI

ORONAZ-MUGAIRI INGURUAN garajea erosi nahi dute. 3,5 metroko altuera eta 3 metroko zabalera izatea ezinbertzekoak. Errentan hartzeko ere interesatuak. ☎ 660 24 07 79.

LURRAK/ORUBEAK

ERRENTAN HARTZEKO

BAZTAN. Ardi borda bat bere lur eremuarekin errentan hartuko nuke Atxuela inguruan. ☎ 663 59 17 76.

LANA

ESKARIAK

Etxalarko neska bat lan bila dabil. Haurrak zaintzen esperientziarekin eta garbiketarako ere prest. Fabriketan eta dendari moduan ibilia. ☎ 687 22 23 20.

Adinekoak zaintzen interna moduan esperientziadun eta erreferentziadun emakumeak lana behar du. Adinekoak edota haurrak orduka edo interna moduan zaintzeko prest. ☎ 666 81 21 13.

Adinekoak zaintzen interna moduan esperientziadun eta erreferentziadun emakumeak lana behar du. Adinekoak eta haurrak orduka edo interna moduan zaintzeko prest. ☎ 666 81 10 56.

Adinekoak zaintzen interna moduan esperientziadun eta erreferentziadun emakumeak lana behar du. Adinekoak eta haurrak orduka edo interna moduan zaintzeko prest. ☎ 644 85 81 34.

Beran bizi den neska euskaldun arduratsua haurrak edo adinduek zaintzeko lan bila. Esperientziaduna. Goizez edo arratsaldean edozein orduetara moldatzen ahal dena. AGHA (TDAH) duten haurreei laguntza klaseak ematen esperientziaduna. ☎ 637 35 56 45 / 948 38 89 54.

BORTZIRIAK. 50 urteko emakume euskaldun batek haurrak edo adine-

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegaberen erantzukizunik

koak zainduko lituzke. ☎ 650 40 79 78.

IGANTZI. Emakume bat adinekoak zaintzen, zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo dendetan laguntzaile lanean aritzeko pres t. ☎ 677 76 92 77 (deitu edozein ordutan).

BERA-LESAKA. Neska batek adinekoak edo haurrak zaintzen, garbiketari, manikurak egiten... lan eginen luke. ☎ 678 07 66 65.

ESKAINTZAK

IGANTZI. Sukaldaria eta zerbitzariak behar dituzte lanaldi osoan aritzeko. Elkarrizketa pertsonalak egiten dira. ☎ 666 45 51 24.

IBARDIN. Beola Etxean sukaldaria behar dute. Bidali curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

BORTZIRIAK. Aholkulari bulego batean aritzeko pertsona bat behar dute.

Laboralaren arloan aditua. Interesatuak idatzi helbide honetara: laneskeintza31@gmail.com.

IRUN. Autoak garbitu, saltzeko prestatu eta mekanika pixka bat dakien langile bat behar dute. Kontratu finkoa eskaintzen da. Interesatuak idatzi: ion@munozarena.com.

IBARDIN. Gasolindegian aritzeko langilea behar dute. Idatzi imerida@hotmail.com helbidera edo deitu. ☎ 638 02 53 48.

ATARRABIA. Euskaltzaleen Topaguneak langileak kontratatu nahi ditu epe laburrean, Nafarroan erabilera eta sentiberatzeko programak kudeatzeko. Euskara ongi menperatzea, gidabaimena eta autoa izatea, komunikaziorako gaitasuna izatea eta Ofimatika programak eta teknologia berriak erabiltzeko trebetasuna edukitzea baloratuko dira. Curriculumak

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,29
- 1.koa 4,07
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,31
- 1.koa 4,17
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 168,00
- Idixkoak 240,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,40/9,00
- 8-10 kilokoak: 6,60/7,10

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 49 €

Zerri gizona 1,038 €

Zerramak 0,430€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (ilbeltzaren 4tik 11ra bitarteko prezioak)

bidaltzeko epea urtarrilaren 29an, 14:00etan bukatuko da. oskar@topagunea.eus.

ELIZONDO. Fisioterapeuta behar du **AFINAK.** ☎ 948 13 53 33.

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

BERA. Ikasleei irakasgaietan dituzten arazoak edo ez-ulertzeak argitzen laguntzeko prest. Irakasle-ikasketak egiten eta karrerako 4. urtean. Lehen Hezkuntza eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzako. ☎ 626 64 59 99.

ZURGINDEGIAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandona - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

MOTORRAK

SALGAI



Seat Toledo 1.9 TDI 110 autoa salgai. Ongi zaindutakoa eta oso egoera onean. 2003koa eta 150.000 kilometro. Zilar kolorekoa eta engantxe desmuntagarria. ☎ 618 37 38 54.



2014ko **Seat Ibiza** autoa salgai. Oso egoera onean, barnetik eta kanpotik. USB, CD, mp3, esku libreak, Bluetooth,... 96.800 KM. Gasolina. Bortz ate. Kolore zuria. Konpromisorik gabe ikus daiteke. 7.400 euro. ☎ 690 73 20 56.

Hyundai Tucson 5p 1.6 131 CV 4X2 Klass Nav salgai. Gasolina. 2016koa. 5 urteko garantzia (2021 arte). 17.500 km inguru. Nabigatzailea, Bluetooth, Wifi, ukipen-pantaila, atzerakako kamara... Azterketa guztiak tailer ofizialean. ☎ 676 44 15 80 (Aritz) Deitu arratsaldean.

KATEA BIKE 2. eskuko bizikletak

1.000€
1.000€
2.900€

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

GANIX Tailerra

948 63 06 69
Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

SANTESTEBAN TAILERRAK

10.750€
CLIO ZEN TCE 90 CV
Klimatiz., nabig., apark. radarra... 2018 5.500 km

12.700€
SANDERO S.L.TROTAMUNDOS DCI 90 CV
Klimatiz., nabig., apark. radarra... 2018

www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

KONTATU KONTUAK

21. korrika
2019ko apirilaren 4tik 14ra GARESTIK GASTEIZA

Klika
21. korrika

www.korrika.eus

Bera 02:52	Azkaine 07:59	Ituren 15:23
Lesaka 03:42	Senpere 08:50	Ezkurra 16:47
Igantzi 04:18	Urdazubi 10:54	Leitza 18:05
Etxalar 05:09	Elizondo 13:22	
Sara 07:13	Doneztebe 14:57	

ANIMALIAK
OPARITZEKO

Escalare arrazako **arrain tropika-lak** opari emateko. ☎637 06 00 73.


DENETARIK
SALEROSKETAK



Insa Turbo Dakar 245/70 R16 **lau gupil** salgai. Gutti erabiliak, hagitz egoera onean. ☎ 600 82 77 26.



Tximeneta salgai. Egoera onean eta merke. ☎ 686 54 46 45.



Armairua (201,7 x 241,6) eta **modulua** (58,8 x 81) salgai. Urte batekoak eta oso egoera onean. Etorri eta ikusi. ☎ 676 26 76 88.

GALDU-AURKITUAK
Azaroaren 15ean Toyota markako **kotxeko giltzak** galdu dituzte Donezteben. ☎ 606 37 39 16.

BERA. Eguzkitako betaurreko graduatuak galdu dituzte Idoia aldean. ☎ 696 83 53 69.

744 484 361
ttipi-ttapa

Apirilaren 8an eskualdetik pasako da 21. Korrika. Klika lelopean, euskararen aldeko herri-lasterketa erraldoia apirilaren 4an aterako da Garestik eta hamaika egunez Euskal Herri osoan barna ibili ondotik, Gasteizen bukatuko da hilaren 14an. Eskualdera apirilaren 8an ailegatuko da. Goizaldean, 03:00 baino lehen, Gipuzkoatik Berara sartuko da mezu sekretua eramanez duen lekukoa eta handik Lesakarako bidea hartuko du. Igantzi eta Etxalarren ibili ondotik, Sarara joanen da 07:00 alderako. Saratik Azkainera eta Senperera joanen da. Eta Ezpeletatik pasatu ondotik, Ainhoan barna, Urdazubira sartuko da. Gero, Baztanerako bidea hartuko du, eta 13:20 aldera Elizondon izanen dela aurreikusitako dute. Baztandik, Bertizaranan barna, Donezteberantz joanen da euskararen aldeko lasterketa eta Elgorriaga, Ituren, Zubieta eta Ezkurratik pasatutakoan, Leitza ailegatuko da, 18:00 aldera. Leitziatik Uitzirako bidea hartzen duenean utziko du gure eskualdea 21. Korrikak. Kilometroak erreserbatzeko Nafarroan 948 464 000 telefonora deitu edo nafarroa@korrika.eus helbidera idatzi behar da eta Iparraldean 05 59 25 76 09 telefonora deitu edo iparraldea@korrika.eusera idatzi.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berri eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontaguztu!

Posta elektronikoa edo Whatsapp
Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppe 744 484361 zenbakira.

Ttipi-Ttaparen egoitzan
Etor zaitetz TTIPI-TTAPAREN bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen dira hilabete batez. Ikusi iragarki guztiak Interneten: <https://erran.eus/sailkatuak/>
Informazio gehiagorako idatzi info@ttipi.eus helbidera edo deitu 948 63 54 58 telefonora.

ZERBITZUAK

HERIOTZAK

- **Juan Luis Alzuguren Etxegarai**, Berakoa, urtarrilaren 3an, 48 urte zituela.
- **Ramon Mitxelena Gamietea**, Iturengoa, urtarrilaren 3an, 72 urte zituela.
- **Elisa Barberia Juanikotena**, Erratzukoa, urtarrilaren 5ean, 89 urte zituela.
- **Koldo Lebron Etxenike**, Leitzakoa, urtarrilaren 6an, 67 urte zituela.
- **Felisa Loiarte Mitxelena**, Goizuetakoa, urtarrilaren 2an, 89 urte zituela.
- **Michel Olagarai**, Sarakoa, urtarrilaren 9an, 83 urte zituela.
- **Juan Larrea Gomez**, Berakoa, urtarrilaren 11n hil zen, 82 urte zituela.
- **Anita Agirre Irazoki**, Berakoa, urtarrilaren 12an, 85 urte zituela.

SORTZEAK

- **Michelle Arretxea Maritorea**, Sunbillakoa, abenduaren 6an.
- **Lide Lournagarai Perotxena**, Arraiozkoa, abenduaren 19an.
- **Martxel Elizondo Ariztegi**, Aurtizkoa, abenduaren 25ean.
- **Maialen Landa Iparragirre**, Arantzakoa, urtarrilaren 2an.
- **Unax Iparragirre Zelaieta**, Arantzakoa, urtarrilaren 5ean.
- **Oier Irigoien Madariaga**, Lesakakoa, urtarrilaren 5ean.
- **Asier Apeztegia Gatón**, Doneztebekoa, urtarrilaren 7an.
- **Joritz Altzuri Mindegia**, Aurtizkoa, urtarrilaren 12an.

BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Beran, Bortziritan eta Malerrekan

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

Hurbiltasuna eta begirunea

T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com

BB
BAZTAN
BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEB**En Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidaso.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidaso.com

Betiko taldea zu laguntzeka

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGI-TEKO: 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

OROIGARRIA

Juan Luis ALZUGUREN ETXEGARAI

Izar berri bat biztu duzu zeru gainean, haren argia izanen dugu oroimenean.

ALAIK TALDEA (Bera)

URTEURRENA

Jose Luis MITXELENA

Saldiasen, 2017ko urtarrilaren 23an

II. urteurrena

Sentitzen dugu zure irria sentitzen zure epela jakizu gure bihotz bakoitzak zurearen pusketatxo bat daramala.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Koldo LEBRON ETXENIKE

Leitzan, 2019ko ilbeltzaren 6an

Leitza gainean dirdirka dago bost puntako izar gorria hari begira ez dugu ahaztuko sekulan zure irria.

ZURE FAMILIA

IRACHE
tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA


TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

URTEBETETZEAK



Haunditzen, haunditzen... Aresoko **Maddi Barandain Iraolak** urtea beteko du otsailaren 1ean. Zorionak pexioxa! Patxo, patxo, muxu, muxu...



Leitzako **Andoni Hernandorena Iregik** 6 urte bete ditu urtarrilaren 17an. Zorionak aitaxo eta amatxoren partetik eta patxo handi-handi bat.



Izaro Larraldek urtarrilaren 26an 17 urte beteko ditu. Zorionak Ane eta Iratiren partetik. Ongi pasa zure egunean!



Andres Alzugarai Contrersek ilbeltzaren 17an 7 urte bete ditu. Aunitz urtez Almandozko aitaxi-amatxi eta osabaren partetik.



Zigako **Itxaso** eta **Mikel Mendiburuk** 11 urte bete dituzte urtarrilaren 21ean. Aunitz urtez eta musu bana familiaren partetik. Trikitixa eta bateriaz alaitutako meriendaren zain geldituko gara.



Goizuetako **Eila Larralde Arotzenak** 6 urte beteko ditu ilbeltzaren 31n. Zorionak politta eta mila muxu zure familiaren partetik. Segi hain zoragarria izaten!!



Leitzako **Maddi, Nahia** eta **Jare Olano Garmendiak** 4 urte bete dituzte urtarrilaren 19an. Muxu handi bana etxekoan eta familia osoaren partetik. Sorginak!



Aunitz urtez **Irati** otsailaren 2an 17 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat zure lehengusinarekin partetik.



Sunbillako **Argia Agirre Arretxeak** otsailaren 3an 8 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia guztia eta berexiki atta, ama eta Oier anaiaren partetik. Ongi pasa eguna!



Aizpea Terreros Alzugarai lesakarrak 3 urte beteko ditu otsailaren 4an. Zorionak eta hiru muxu ataxirekin partetik.



Aunitz urtez Arraiozko **Aiora Arraztoa Agerrebereri** familia guziaren partetik, baina bereziki anaia Oinatzen partetik, urtarrilaren 22an 6 urte bete ditu eta! 6 muxu handi etxeko printzesari.



Gure familiako gizon eta gizonxoak abenduan eta urtarrilean urteak betetzen dituzte. Zorionak denei familiako nesken partetik. Muxuak!

Bagoaz, baguzi, bagazi ttipi-ttapa haziz!



Zuk TTIPI-TTAPARI
50€
ematen badizkiozu

MECNAK zuri
40€
bueltatuko dizkizu

...eta zure ekarpenekin zer egingen du Ttipi-Ttapa Fundazioak

- TTIPI-TTAPA aldizkaria argitaratu eta zure etxera eraman
- ERRAN.EUS eta sare sozialen bitartez egunero informazioa zabaldu
- Euskara eta euskal kultura sustatu

eta guztia...
EUSKARATIK ETA
EUSKARAZ

LAGUNDU

40 euro berreskuratuko dituzu 2019ko errenta aitortpenean

ONURA FISKALA
PARTIKULARRENTZAT

Egindako donazioaren %80a itzuliko zaizu errenta aitortpenean lehen 150 €tan, eta %40a kopuru haundiagoetan.

AURREZTU




Informazioa lortu nahi baduzue deitu **948 635 458** telefono zenbakira edo gurekin harremanetan jarri **bagoaz@ttipi.eus** posta elektronikoa

PLAZAN BAZAN



DOMINOAN

Marraztu fitxetan falta diren irudiak, domino lerroa zuzena izan dadin.



Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

Lotu irudiak bere izenarekin

KASKEZURRA

MAMUA

KUIA / KALABAZA

HILARRIA

ENBORRA

SAGUZARRA



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



otsailaren 4tik 8ra
aurrematrikulazioa

ikastola
elkarrekin
hezkuntza
eraldatzen

BAZTAN
Baztan ikastola

bilera informatiboa **urtarrilaren 30ean**,
arratsaldeko 5etan
(Parkeko Ikastolan).
T. 948452448

LESAKA
Tantirumairu ikastola

bilera informatiboa **urtarrilaren 30ean**,
arratsaldeko 5etan.
T. 948637308

BERA
Labiaga ikastola

bilera informatiboa
urtarrilaren 30ean,
arratsaldeko 5etan
(Eztegarako egoitzan).
T. 948630172





Bortzirietako eskola publikoak

Ricardo Baroja IP (Bera)
Landagain IP (Etxalar)
Irain IP (Lesaka)
Toki Ona BHI (Bera)
Arantza IP
Igantzi IP

AURREMATRIKULAZIO EPEA:

Haur eta Lehen Hezkuntza:
otsailaren 4tik 8ra

DBH, Batxilergo eta
Lanbide Heziketa:
datak zehaztear daude



ARANTZA: HERRI ESKOLA
T. 948 634 104
Arantzako Herri Eskola

<https://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/arantzaherrieskola/>



ETXALAR: LANDAGAIN ESKOLA
T. 948 635 215



BERA: RICARDO BAROJA E.P.
T. 948 625 019
www.ricardobarojaeskola.net



BERA: TOKI ONA INSTITUTUA
T. 848 431 710
iestokiona.educacion.navarra.es



IGANTZI: HERRI ESKOLA
T. 948 637 829



LESACA: IRAIN E.P.
T. 948 638 006
irain.educacion.navarra.es/web

GURE HERRIKO HIZKUNTZA ETA KULTURA BULTZATUZ | DOAN | INTEGRATZAILEA
JANTOKI ETA GARRAIO ZERBITZUAREKIN | TEKNOLOGI BERRIEZ BALIATUTA
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA HERRI ESKOLETAN | DBH, BATXILERGOAK ETA LH. BERTAKO INSTITUTUAN
2 URTETIK 20 URTE ARTEKO KALITATEZKO IRAKASKUNTZA JARRAIA, ELKARLANEAN ETA KOORDINATUA